

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko maiatzaren 21a / 674. zenbakia



ERDI AROKO I. AZOKA
ZAPATUAN ETA DOMEKAN, ALDE ZAHARREAN

ORAIN ETA HEMEN: **SAN JOSEPE HARROBIA/6** • **KIROLA: MENDI ASTEA/10**

EDERTASUN GIDA/23

ILUNTZEAN

Joan Maria Setien solaskide


Eguenean, maiatzaren 27an
21:15ean

Aurkezlea:
Aintzane Gardoki



Ikusitekoa!

ILUNTZEAN
Ile apaindegia: Gorka
Jantziak: Udalaiz



SAIO BEREZIA GOIENAN HERRIZ HERRI Debagoiena hizpide

Martitzenean, abenduaren 25ean,
20:30ean

Aurkezlea:
Alberto Gorritiberea

Parte hartzeko telefonoa:
943 71 23 93




Ikustekoa!


GOIENAN HERRIZ HERRI / Babeslea:




KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu automobillen karneta puntoka jartie?



MIKEL ARRIAGA
Ikasle



JESUS AGIRREURRETA
Jubilau



JOSE LUIS GARCIA
Langillie



MIKEL ZUBIZARRETA
Langillie



ELENA LANDALUZE
Langillie



IRATXE ZABALA
Langillie

Akaso, infrakziñuek haunditu egingo die, puntuekin jakingo doguleko zenbat infrakziño egin geiken. Gaur egun ez dakigu infrakziñue egin ezkerro ze egingo duskuen; baiñe gero bai.

Puntoka jartie idea ona dala uste dot; jentiek bilddur haundixae eukiko dau eta kontu haundixaeekin ibilliko da. Horrei esker, akzidente gutxiau egongo dala uste dot.


Hori baiño lehenau, beste gauza asko egin biher die: karreterak biher dan moduen konpondu, seiñaliek jarri... Hori egin ostien akzidentiek behera egitten ez badaue, puntoka jarri.

Frantzian eta beste leku batzuetan emaitza onak emun dittu. Egixe esatiren, zoruen moduen ibiltzen gare, eta zoezer egin bihera dau. Hala be, karreterak konpondu biher die.

Idea ona dala uste dot, baiñe ez dakit egunerokuen zela funtzionauko dauen. Esango neuke puntuekin jentiek multekin baiño ardura haundixae hartuko dauela.

Alde batetik ondo ikusten dot, jentie karreteran kontu haundixaeekin ibilli dain. Baiñe karreteran konturatu barik infrakziño txikixe egin ezkerro... Horrek kalte egingo dusku.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ITURRI ESKASA San Andres auzoko lagun batek aditzera eman digu Araba etorbidearen atzealdean dagoen plaza bateko iturriak aspaldian ez duela urik ematen. Eguraldiak onera egin du, eta batez ere plaza horretan jolasean ibiltzen diren gaztetxoek iturri horrek ura ematea eskertuko lukete. Arrazoi horregatik, Udalarari eskatzen diote arazoa konpon dezala.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

KIROLA /12

KULTURA /15

Bedoñabe eraikina

Haurtzaindegia eraikitzeke proiektua idatzi dute Udalean. Laster esleitu egingo dute.

3x3 Saskibalo Txapelketa

Bihar, ehun taldek baino gehiagok hartuko dute esku Laubiden egingo duten saskibalo txapelketan.

Mugarriz mugarri

Domekan, *Mugarriz mugarri* Arrasate ezagutzen leloa duen ibilaldia, AEDren eskutik.

ASTEKODATUA

23

MILA EUROKO AURREKONTUA DAUKA ERDI AROKO AZOKAK

Bihar eta etzi, Arrasaten egingo den Erdi Aroko Azokak gutxi gorabehera 23 mila euroko aurrekontua izango du. Azoka arrakastatsua izaten bada, Udalak urtero egingo du.

BESTEKEESANA

“Jendeak aldizkarietan irakurritako edo lagun batek esandako dieta miragarriak egiten ditu; baina bikini jantzeko dieta arraro horiek ez dira egin behar; ondo jan behar da. Ohitura onak hartu eta osasuntsu jaten ikasi behar da. (...) Jendeak astakeria handiak egiten ditu. Askok elikagai bakarria jaten dute: esaterako, orburuaren dieta, eta hori osasunarentzako txarra da. Denetik jan behar da: barazkiak, esnekiak, fruta, lekaria, haragia, arraina. (...) Afaria arina egin behar da. Esaterako, entsalada eta arrain urdina. Eguerdian nahiz gauean, ogia eta patatak jan daitezke. Ez dago loditzen duen jakirik, baina batzuek besteek baino koipe gehiago dute. Askok gosaldia behar da. Olio kontrolatzea eta kirola egitea garrantzitsua da”

LEIRE EZKURRA
'BERRIA'/04-05-13

HERRITARRENBERBAK/ Antton Mendizabal



Gure Europa

Ez, aurkeztu diguten Europa ez da gurea. Gure Europa bestelakoa da. Espartakorekin matxinatutako esklaboek egin nahi zutena. Jauntxoek aurka Tomas Muzerekin ibilitako nekazariak amestu zutena; Gaztelako komuneroen asmoetan zegoena; Parisko erkidegoak aldarrikatu zuena; hogeigarren gizaldiaren hasieran herritar eta langile matxinadek irudikatu zutena; estatu gabeko nazio zapalduak eskatzen dutena; horren alde egiteagatik Frantzia, Ingalaterra eta Espainiako espetxeetan dauden irlandar, korsikar eta euskaldunek borrokatu dutena.

Aurkeztu diguten Europa zapaltzailea eta menperatzailea da. Grezia eta Erromarekin hasitakoa. Karlomagno eta inperio Erromatar-Germaniko sakroarekin jarraitzen duena; Karlos V eta Espainiako inperioarena; Portugal, Frantzia, Holanda eta Ingalaterrako inperioena; Bigarren Gerrate

Mundialaren ostean Reich handiko ondorengoak eta historian izandako inperialista handienak elkartuta osatutako Europa inperial berria. Azken horrek mundu osoko domeinurako lehiatzen du, Japonia eta Amerikako Estatu Batzuekin harreman kontrajarrian eta aliantzan.

“Aurkeztu diguten Europa zapaltzailea eta menperatzailea da. Besteak beste, harremanak diru harreman bihurtu dituen”

Bestelako Europari buruz gabiltza. Oparotasun, demokrazia eta bakearen jantzi dirdiratsuen itxurarekin, giza bazterketa, langileen gehiegizko ustiakuntza, herritarren zapalkuntza eta

askatasun gabeko herrien errealitatea isilarazi eta ezkututzen dituen. Giza harremanak diru harreman bihurtu dituen. Kontsumismoan, giza komunikazio ezean eta elkar laguntza ezean oinarritutako bizimodu eredu eraiki duen Europa horrek. Emantzipaziorako utopian eta errealitatearen pragmatismoaren artean, lotuta, zapalduta eta ukatuta daukan beste Europa, gure Europa... gurea.

Arrasate
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bollenaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berebizar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 21
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09

ZAPATUA, 22
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30

DOMEKA, 23
Azkoaga. Ferrerías 1. 943 79 15 15

ASTELEHENA, 24
Azkoaga. Iturriotz 17. 943 79 79 99

MARTITZENA, 25
Corcuera. Maisu Aranbarri 1 ... 943 79 22 26

EGUAZTENA, 26
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39

EGUENA, 27
Amezua. Santamarina 32. 943 79 09 74

EGUBAKOITZA, 28
Español. Araba etorb. 14 943 79 18 65

TELEFONOJAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Iguualatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11

LARRIALDIAK
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11,
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa

Arrasate
Astelehenetik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

ERTZAINZA
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTZAILAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
..... 943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza ... 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Santa Marinako eliza Jai egun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

KILOMETROAK 2005
Eguaztenean, Arizmendi ikastolak Kilometroak 2005en herri aurkezpena egingo du Ferixalekuan, 18:00etan.

ERDI AROKO AZOKA
Bihar eta etzi, zapatua eta domeka, Erdi Aroko Azoka egingo dute. Seber Altube, Iturriotz, Erdiko kale eta Herriko Plazan hainbat ekitaldi egongo dira goizetik iluntzera arte.

UMOREZKO IKUSKIZUNA
Domekan, 00:30ean, Margarita La Aldeanak umorezko ikuskizuna egingo du Gambrinus tabernan, doan.

GENERO INDARKERIA
Maiatzaren 31n, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako plataformak batzarra egingo du Emakume Txokoan, 19:00etan. Taldea zabalik dago.

PLASTIKO BILKETA
Martitzenean, maiatzaren 25ean, baserri inguruneetan sortutako plastikoaren bilketa egingo dute. Udalan, Bedoñan eta Garagartzan jasoko dute.

MUGARRIZ MUGARRI
Domekan, Garagartzara ibilaldia egingo du AEDk. 09:00etan da hitzordua, Uribarriko elizan.

AEDrenAGENDA

KONTSEILUAREN KAMISETA
Kontseilua kanpaina bat bultzatzen dabil *Hizkuntza eskubideak, denon konpromisoa* leloarekin. Kamisetak atera dituzte, eta AEDn daude salgai, 20 eta 22 eurotan.

KULTUR ERROTA
Maiatzaren 28an, Ramon Agirre eta Joserra Senperenaren ikuskizuna, Jai Zale tabernan, 23:00etan.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Trenbide zaharraren aldeko ekimena

Maltzaga-Urbina ardatzaren gaineko eztabaida prozesuan, trenbide zaharra oinezkoendako eta txirringularendako berreskuratze ekimena sortu zuten. Besteak beste, trenbide zaharraren aldeko txostena egin zuten eta herriko berrogei taldek ekimenearekin bat egin zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Lotsakizun"



Lotsatzeko motiboa.
—Familixandako lotsakizuna da ori.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA
Zapatua, 15 **6 °C**


MAXIMOA
Martitzena, 18 **31 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²)
0,7 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 12	15 °C	11 °C	0,4 l/m ²
Eguena, 13	16 °C	12 °C	0,3 l/m ²
Egubakoitza, 14	18 °C	9 °C	- l/m ²
Zapatua, 15	21 °C	6 °C	- l/m ²
Domeka, 16	25 °C	7 °C	- l/m ²
Astelehena, 17	26 °C	7 °C	- l/m ²
Martitzena, 18	31 °C	9 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Bero handia egingo du udan?

Udan sekulako beroa egingo duela iragartzen dabilza batzuk, eta herriko irratian horren gaineko solasaldia egingo dugu. Pello Zabala adituari udan egingo duen eguraldiaz galdetu diogu eta Josu Ogizari, Hiper Eroski-ko gerenteari, haizagailuak eta aire girotuaren aparatuek ohi baino gehiago saltzen dabilzan. Bestalde, txakolinaren gaineko xehetasunak eskainiko ditugu, Edorta Agirre gastronomia adituaren eta Mikel Garaizabal enologoaren eskutik.

Aizkorriko maratoia astelehenean

Astelehenean, 10:15ean, Aizkorriko maratoiaren gainean arituko gara kirolari eskainiko diogun tartean. Berezi, Debagoieneko parte-hartzaileekin egingo dugu berba. Martitzenean, bestalde, Xabier Euzkitzeri égingo elkarriketa eskainiko dugu, 19:15ean. Euzkitze ezaguna da ETBko pilota partiduetako esataria eta telebista aurkezlea ere badelako. Aintzane Gardokik egin zion elkarriketa hori, GOITBn.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

EGUBAKOITZA
19:10 Planning Prest

ZAPATUA
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarriketak: Egonaldiak familia euskaldunetan programaz; Maider Alzelai, artisaua; Pello Zabala eta Josu Ogiza...

DOMEKA
10:00 Asteko albisteak
10:15 Asteko elkarriketak

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
10:00 Euskadi Irratiko albistegia
10:06 Igo Autobusera magazina: efermerideak, elkarriketak, kirolak...
11:00 Euskadi Irratiko albistegia
11:06 Igo autobusera magazina
11:30 Arrasate Irratiko albistegia
11:40 Igo autobusera magazina
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
17:00 Izarren ordua.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

MARTITZENA
19:10 Iluntzean Xabier Euzkitze

EGUENA
19:10 Noraezean

ASTEABIHITZETAN

Urruntze agindua bete ez, eta atxilotuta

Arrasateko udaltzainek 42 urteko L.E.A. gizonetako mondra-goetarra atxiki zuten joan den egunean, hilak 13, Grupo San Juan inguruan. Herritar horrek emaztearengandik urruntze agindua zeukan, eta emaztearen etxetik oso gertu zebilela ikusita, udaltzainek gizona atxiki zuten. Ertzainak iritsi zirenean atxilotuta eraman zuten.

Ertzainek diligentziak egin eta auzitegiari atxilotetaren berri eman eta gero aske utzi zuten gizona. Orain, epailearen erabakiaren zain dago.

Genero indarkeriaren kontra

Hainbat herritar emakumearen kontra erabiltzen den indarkeriari aurre egiteko plataforma bat sortzeko bidean dira. Egitasmo horrekin aurrera egiteko batzarra egin zuten joan den astelehenean, Emakume Txokoan.

Plataforma sortu gura duten herritarrek uste dute gizartean badaudela arlo zehatz batzuk asko lagun dezaketenak emakumearen kontrako joera hori aldatzen. Eta, hain zuzen, hori izango da egingo duten hurrengo lana: talde horiekin harremanetan jarri eta elkarlana bultzatu. Hurrengo bilera maiatzaren 31n egingo dute, 19:00etan, Emakume Txokoan, eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

San Pankrazio jaietan gero eta jende gehiago

Urtetik urtera gero eta jende gehiago egoten da Eskola Profesionaleko ikasleek antolatzen duten San Pankrazio jaietan. Goizean hasita gazte asko ibili zen txikiteoan, eta eguerdian bazkaltzera joan eta gero, arratsaldean giro paregabea izan zen bai Iturripeko pilotalekuan eta baita Eskola Politeknikoaren ondoan dauden tabernetan ere. Azkenean, udaltzainek joan behar izan zuten, 07:00ak aldera, txosnak ixteko eskatzera.



Ekitaldi jendetsua, zapatuan

Zapatuan jende asko batu zen Jesus Mari Zabarte preso arrasatearraren eta Jon Agirre preso aramaioarraren aldeko ekitaldian. Antolatzaileen esanetan, 300 lagunetik gora batu ziren Arrasaten, eta kale agerraldia egin eta gero Arrasateko gaztetxean ekitaldi politikoa egin zuten.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Subjektibitatea

Komunikabideetan lan egiten dugunoi ere kaskotan komunikabideen albisteek asperduratik ateratzen gaituzte. Astean bi albistek nire arreta piztu dute. Espainiako Justiziako Sailburuak Herritarren Zerrenda taldea ez onartzeko erabili dituen argudioak, adibidez. Haren esanetan, talde berri horretan iraganean legez kanpo utzitako

alderdietako hiru kide daude; eta horrez gain, beste lagun batzuek legez kanpo utzitako taldeekin maila desberdineko identitate subjektiboa daukate. Hala esan zuen eta hala ei da. Kontu eta iritzi subjektiboek garrantzia handia daukate, jakina! Halakoak asmatu beharrean, hobe luke PSOEk ditxosozko lege hori aldatzen badu!

Beste albistea honako hau da. Astean Bartzelonako Forum ospetsu horretan egin dituzten jardunaldi batzuetan, Salman Rushdie idazle ezagunak *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiera gogor salatu du. Nazioarteko beste esatari batzuk, herriz, ez zuten itxiera horren berri.

Bitxia da azken hamarkadatan mehatxatuta ezkutan bizi behar izan duen Rushdie idazleak horren berri izatea, eta beste batzuek ez. Informatzeko gogoia izanez gero...

ASTEKO IRUDIA



AMAGIOIA LASAGABASTER

FELIX AYALAK IRABAZI DU BIGARREN ALDIZ BERGARAKO ABDON JUARISTI MARGO LEHIAKETA

Felix Ayala arrasatearrak irabazi du bigarren aldiz Bergarako Abdon Juaristi margo lehiaketa. Abdon Juaristi Bergarako margolari oso ezaguna zen, eta haren omenez, urtero, zezenen gaineko lehiaketa antolatzen dute. Irabazlearen lana Bergarako Mendekoste jaietan izaten diren zezenketak iragartze-

ko erabiltzen dute. Felix Ayalak urte asko darama margotzen, eta lehiaketa hori irabazten duen bigarren aldia da. Lehiaketako lan guztiak erakusgai daude Bergarako kultura etxean. Ezagun da margolari bergararrek ibarrean duten ospea, eta Ayala harro egoteko moduan dago. /ARRASATE PRESS

CORAZON DE ENCINA EXTREMADURAKO ZENTRO KULTURALA

Astelehenetik ostiralera eguneko mezua, plater konbinatuak, arrazioak, alde zurretik eskatutako oilasko errea eta ogitartekoak.

Espezialitateak: olagarroa, txerri-belarriak eta txerri-masaila.

Guztiontzako zabalik!!

Araba etorbidea 3 Tel.: 943 79 11 75.


Aitor Belardenda

Osasuna eta elikadura

- Produktu dietetikoak
- Dieta pertsonalizatuak
- Aurpegi garbitzeak
- Masajista

Olarte 7 ARRASATE
943 79 90 43

PUB HAIZEA





ARRASATE PRESS

Aralar, Zutik eta Ezker Batua alderdiek eta Ekologistak Martxan taldeak salatu dute harrobia, prentsurrekoaren bitartez.

SALAKETAK/ San Josepe harrobiak lanean jarraitzen duela salatu dute

San Josepe Bi harrobiaren gaineko salaketa gehiago

UBANE MADERA

San Josepe Bi harrobiaren kontrako salaketa gehiago egin dituzte oraingo astean. Aralar, Zutik, Ezker Batua eta Ekologistak Martxan taldeek egin dituzte salaketak. Batetik, harrobiaren jarrera salatu dute; bestetik, Udalarena; eta hirugarrenik, Meatze Sailarena.

Aralar, Zutik eta Ezker Batua alderdiak eta Ekologistak Martxan taldea berriro ere elkartu dira San Josepe harrobian gaineko salaketak egiteko. Oro har, hiru salaketa egin dituzte: San Josepe harrobiak izandako jarrera; Udalak izan duena eta Eusko Jaurlaritzako Meatze Sailak izan duena.

San Josepe harrobiari dagokionez, azkenaldian behin eta berriro entzun ditugun salaketak errepikatu dituzte atzoko prentsurrekoan: dagoeneko jarduera bukatuta izan beharko lukeela; industrialdea egiteko gunea egokituta izan beharko lukeela eta oro har, ez duela bete Arrasateko Uda-

larekin hitzartutakoa. Horrekin batera, salatu dute harrobia itxi baino apur bat lehenago eta ostean, leherketak egin zituztela San Josepen, eta kalkuluen arabera, urtebete baino gehiagorako lana lortu dutela. Harrobiko langileen lan-baldintzak ere salatu dituzte.

ARRASATEKO UDALA

Herriko Udalari dagokionez, zera esan diote: beste edozein herritarri legea zorrotz betetzeko eskatu izan zaiola beti, aldiz, harrobiaren jabeari oraín arte ez zaiola egindako arau-haustearengatik inolako erantzukizunik eskatu. Horrez gain, adierazi dute udalbatzarrak betearazi egin behar dituela hartutako akordioak eta

halako arau-hauste larriaren aurrean neurriren bat hartu beharko duela.

MEATZE SAILA

Eta Eusko Jaurlaritzako Meatze Sailaren gainean salatu dute harrobia ixteko aginduari jaramon egin barik baimena eman ziotela leherketak egiteko. Erabaki horren legezotasuna zalantzan ipintzeaz gain, salatu dute Meatze Saila aspalditik dabilela harrobiarekin lotutako araudia ez errespetatzen.

EXIJENTZIAK

Behin hori guztiori salatu eta gero, Aralar, EB, Zutik eta Ekologistak Martxan taldeek zera exijitu dute: udalbatzarrak erabakitakoa bete-araztea harrobiari; harrobiari erantzukizunak eskatzea; harrobia leheneratzea; Meatze Sailari argi eta garbi jakinaraztea San Josepe harrobiak ez duela lanean jarduteko Udalaren baimenik; harrobiko langileen lan-baldintza egokiak errespetatzea eta harrobia ixten dutenean haiendako beste lanposturen bat aurkitzea.

Salatu dute azkeneko luzapena eman ziotela gunea leheneratu eta industrialdea egiteko

Olandixoko proiektua idazteko lehiaketa abiarazi dute

U.M.

Diputazioak eman du mendebaldeko saihesbidea egiteko hurrengo pausoa: proiektua idazteko lehiaketa publikoa abiaraztea. Hala jakinarazi diote Udalari. Besteak beste, tunela eta zubia eraikiko dituzte.

Diputazioak Udalari jakinarazi dionez, 300.000 euroko aurrekontua aurreikusi dute lan hori egiteko.

OLANDIXOKO TUNELA

Horrek esan gura du aurrera doala Olandixoko tunela egiteko proiektua. Horren arabera, Arrasate mendebaldetik inguratuko

duen errepidea eraikiko dute, besteak beste, Aramaiorako bide-errazago iristeko eta han dauden auto-ilarak apur bat arintzeko. Aretxabaletaren eta Arrasateren arteko mugan hasiko da errepide berria. Hain zuzen ere, biribilgunea egingo dute Meca inguruan, gaur egungo saihesbidera joateko dagoen zubian. Handik aterako da bide berria, eta 850 metro egingo ditu, apurtxo bat mendian gora igotzen. Han, tunelean sartuko da, beste 800 bat metrotan eta gero, zubi baten bitartez Aramaio ibaia zeharkatuko du. Han, Garagartzara doan errepidearekin bat egingo du. Guztira, 2.000 metro inguru izango ditu saihesbideak.



XABIER URZIZAI

Meca ingurutik aterako den tunela egingo dute, Garagartzara bideraino.


LABUR

Biteriko eta Laubideko aparkalekuak erabiliko dituztenen aurreneko zerrenda onartu dute

Biterin eta Laubiden 598 aparkaleku egiten dabilta. Inguruko kaleetakoek lehentasuna dute horietatik 448 aparkaleku hartzeko. Guztira, auzotar horiekin lau zerrenda egitea da Udalaren asmoa, lau hilabetean. Orain, apirilari dagokion zerrenda onartu dute.

Inguruko herrietan moduan, Arrasaten ere aurkeztu dute Herritarren Zerrenda

Europarako hauteskundeetan atarian, Herritarren Zerrenda alderdia herriz herri dabil aurkezpena egiten. *Euskal Herria* Europar leloarekin aurkezten dabilta taldea. Arrasaten atzo izan ziren, Arrano elkartearen. Besteak beste, jakinarazi zuten Herritarren Zerrenda legez kanpo uzten badute, herri batzarrak egingo dituztela.



Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaikak eta aulkikak

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

UGARAN
jatetxea

Garagartzeta auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



Bonaventure Diesel Pepe Levis

Otalora z/g Behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

Bedoñabe eraikinean haurtzaindegia eraikitzeko proiektua idatzi dute


UBANE MADERA

Laster hasiko dira Bedoñabe eraikinean haurtzaindegia egokitzeko lanak egiten. Proiektua dagoeneko idatzi dute, udaletxean. Orain esleitze prozesuarekin hasiko dira —hilabete inguru-edo— eta horren ostean hasiko dira egokitze-lanak egiten. Lau bat hilabetez ibiliko dira lanean.

Ahalik eta azkarren dabil Arrasateko Udala Bedoñabe egokitze-proiektua lantzen. Izan ere, asmoa da datorren iraila amaierarako lanak amaituta izatea. Kultura Saileko arduradun Ines Aldaik esan digun moduan, aurreikusitako lanak egiteko lau hilabete behar izango dituztela. Adierazi digu ahalegin guztia egingo dutela epe hori betetzeko. Baina, era berean, gogorarazi digu euren eskuetan ez dauden atzerapenak ere gerta litezkeela; adibidez, orain momentuan, eraikuntza arloko langileak greban daude.

LAU HILABETE AURREIKUSI DITUZTE

Kontuak kontu, oraingo, guztia bide onetik doa. Udaletxeko teknikariek idatzita dute Bedoñaben haurtzaindegia eraikitze-proiektua eta laster lanak esleitu egingo dituzte. Gutxi gorabehera hilabete epea beharko dute hori egiteko. Horren ostean hasiko dira lanak egiten; aurreikuspenen arabera, bi hilabete eta erdiz ibiliko dira jardunean. Gero, gela



Sehaskak ipintzeko sei gela izango ditu Bedoñabeko haurtzaindegiak.

berrietarako altzariak-eta ekartzeko eta irakasleak egokitzeko beste hamabost bat egun beharko dituzte. Guztira, lau bat hilabete. Eskolako beharrak aztertu eta gero, sei gela behar dituztela jakinarazi zieten Bedoñabeko ordezkariak udaletxekoei. Udal teknikariek esan digutenez, gela batzuetan 13 sehaska eta beste batzuetan zortzi sehaska sartuko dituzte. Era berean, janariak-eta berotzeko hiru gela eraikiko dituzte; eta geletako bat besteak baino handiagoa izango da, orotariko areto moduan erabil dezaten. Horrekin batera, eta Bedoñabe eraikinak ibilerraztasun baldin-

tzak betetzen ez dituenek, Alfonso VIII.a kalera ematen duen sarreran arrapala bat eraikiko dute, ume-kotxeendako. Aipatutako lanak egiteko, besteak beste, Bedoñabeko pare bat gela lekuz aldatu beharko dituzte. Batetik, gaur egungo harrera gela erdi satora aldatuko dute, gaur egun erabiltzen ez dituzten bi dutxa dauden lekura. Bestetik, psikomotrizitate gela bigarren solairura aldatuko dute, hango gelak egokitu ostean.

Udaletxeko teknikariek jakinarazi digutenez, 304.000 euroko aurrekontua aurreikusi dute haurtzaindegia egiteko.

Ekainean bukatuko ditu Emakume Txokoak aurtengo jarduerak

U.M.


Datorren ekainaren 1ean bukatuko da jendaurrean berba egiteko ikastaroan izena emateko epea. Autodefentsa ikastarorako izena emateko azkeneko eguna, berri, ekainaren 9an izango da. Ikastaro biak Emakume Txokoak antolatu ditu.

Ekainaren 4an eta 5ean izango da jendaurrean berba egiteko ikastaroa. Taldea beteta dago.

Ekainean egingo duten hurrengo ikastaroa, berri, (ekainak 11 eta 12) autodefentsaren gainekoa izango da. Hain zuzen ere, aurtengo ikasturteko azkeneko ikastaroa izango da. Interesa duenak ekainaren 9a baino lehen eman beharko du izena.

ERAKUSKETAK ETA HITZALDIAK

Ikastaroekin batera, erakusketak ere egiten dabilta Emakume Txokoan. Astelehenetik (maiatzak 24) ekainaren 4ra arte, *Emakumeak lanbide ezberdinetan* erakusketa izango da. Eta ekainaren 8tik 18ra, ikastetxeetan egindako marrazki lehiaketaren emaitzekin *Gizon eta emakumeen arteko lan eta arduren banaketa* erakusketa egingo dute. Bestalde,




Datorren ekainaren 18an bukatuko dute aurtengo ikasturtea Emakume Txokoan.

maiatzaren 26an, *Antiglobalizazioa, pobrezia eta emakumea* hitzaldia izango da, 19:00etan. Eta ekainari begira, beste bi hitzaldi antolatu dituzte: 2an, *Emakumeak Zinemagintzan* eta 16an, *Prostituzioa*.



Arrasateko
euskalgintza



KIKE AMONARRIZ/SOZIOLINGUISTA

“Gauza askotan hutsune larriak sumatzen ditugu”

Arrasateko Euskalgintzaren eskutik, joan den astean motibazio saioak antolatu zituzten Arrasateko gaztetxean. Kike Amonarriz soziolinguista izan zen saioen arduraduna. Besteak beste, honakoa kontatu zigun:

Gaur Arrasaten, baina beste herri batzuetan ere eman dituzu horrelakoak. Zeintzuk dira helburuak?

Helburu nagusia da gazteei gaur egun euskararen inguruan gertatzen ari diren fenomeno berriak azaltzea, haien jarrera linguistikoen atzean dauden arrazoiak eta klabeak azaldu nahian: zergatik hitz egiten duten hitz egiten duten moduan, askotan zergatik zaien euskara hain deserosoa, euskararen alde egon arren zergatik dagoen euskaraz egiten ez duen hainbat jende...

Zergatik gertatzen da hori?

Azken urteotan, euskararen historian inoiz gertatu ez diren fenomenoak ari dira gertatzen. Euskal komunitatearen barne egitura guztiz aldatu da eta horren ondorioz, gazteek bizi duten egoera soziolinguistikoa ez du aurrekaririk. Hitzaldi hauen beste helburuetako bat, hain zuzen ere, egoera horrek aurkezten dituen galdera eta behar berriak jasotzea da, etorkizuneko erronkei modu egokiagoan erantzun ahal izateko.

Gauza askotan aurrera egin dugu: Arrasateko gazte guztiek dakite euskaraz, denak dira alfabetatuak, kultur ekoizpen zabala dugu euskaraz... Baina beste askotan, hutsune larriak sumatzen ditugu: adierazkortasun arazoak, gazte-rarekiko hizkuntzaren mendetasun erabatekoa, erabilera indize xumeak...

Saioan, azken 20-25 urteotan aldaketa batzuk gertatu direla aipatu duzu. Zeintzuk nabarmenduko zenituzke?

Aldaketen sakontasunaz ohar gaitezen, batzuk aipatuko ditut. Lehen aldiz, euskaldun guztiak elebidunak gara; denok dakigu gaztekeraz. Bestalde, eta inguru hauetara etorrita, esan genezake haur eta gazte guztiak euskaldun alfabetatuak direla; denok dakite —hobeto edo okerrago— euskaraz. Lehen aldiz gure historian, Arrasateko gazte euskaldun askoren bi gurasoak erdaldunak dira. Horrela, gazte euskaldunen artean, batzuk ia euskaraz bizi diren bitartean, beste batzuek ez dute inolako loturarik euskararekin ikastetxetik kanpo. Euskarak inoiz izan ez dituen moduko azpiegitura eta erabilera sektorialak ditu, baina aldi berean erdararen nagusitasuna ia erabatekoa da esparru askotan, eta euskarak bere-bereak zituen esparruetan gaztekeraren sarbidea geldiezina da.

Eta euskararen barne egiturari dagokionez, bertako euskalkia ongi dakiten haur eta gazteak gutxiengoak dira. Izan ere, normalean adin horietan hitz egiten den euskarak bertakoa, batua eta erdarakadak nahasten ditu. Eta gainera, ahozko kode informalarik, idatzizko kode informala gehitu zaio (txatak, SMSak, agendetak oharra, eta abar).

“Gazte batzuek ez dute inolako loturarik euskararekin ikastetxetik kanpo”




HORI DA HORI EZKON AURREKO PARRANDA EGITEA!!!

Maitane eta Fran oraingo asteburuan ezkonduko dira. Ez dakiguna da —ez guk eta ezta Maitaneren koadrilakoek ere— argazki hau ikusita Franek bihar aldarean dagoenean baiezkoa emango ote dion Maitaneri. Argi dago Maitaneren ezkon aurreko afarian parranda galanta egin zutela, eta argazkiaren ezker aldean dagoena Maitane bada ere, ez galdetu eskuinaldean dagoena nor den. Maitaneren koadrilakoen partetik, zorionak, bikote!!!

LAUSARDIK KONTZERTUA EGINGO DU LIZARRAN, BIHAR, ARRATSALDEKO ZORTZIETAN

Arrasateko Goikobalu abesbatzak eta Bergarako orfeoiak osatzen duten Lausardi taldeak kontzertua emango du bihar arratsaldean Lizarran. Aurkeztuko duten lanaren izena *Afrika* da, Donato Goienetxek konposatutakoa eta zuzendutakoa. *Afrika* lana 20 atalez dago osatua, eta bi bakarlarik hartzen dute esku: Jesus Mari Garcia

izango da baritonoa eta Marife Nogales mezzosopranoa, hain zuzen ere. Kontzertua Lizarrako antzokian izango da, 20:00etan. Argi dago Aste Santuan egin zuten bidaiaren ondoren Arrasateko Goikobalu abesbatzakoak indarberrituta itzuli direla. Orduan, arrakasta handia izan zuten Italia eta Grezia inguruan.



SALOUN KONTZERTUA EGIN ETA... ASTEBURUA ONDO APROBETXATU

Arrasate Musikaleko bandako lagunak Saloun izan ziren maiatzaren 7ko eta 8ko asteburuan. Bandakoen asmoa asteburua elkarrekin igarotzea zen, eta nola ez, kontzertua emateko aprobetxatzea. Kontzertua Salouko Plaza Iluminadan egin zuten, eta jende asko inguratu zen bertara. Esan digutenez, gainera, euskaldun asko izan zen kontzertua ikusten. Musika emanaldiaz gain, baina, ondo aprobetxatu zuten asteburua, Port Aventura izan ziren-eta bandako kideak. Horrez gainera, Salouko gaueko giroa ere zuzen-zuzenean bizi izan zuten.

MUSAKOLAKO JAIAK, GAZTE ZEIN NAGUSIENDAKO

Joan den aste bukaeran San Isidro eguna ospatu zuten Musakolan. Ekitaldi gehienak aste bukaeran izan baziren ere, gaztetxoek danborradako argazkiak egubakoitzean atera genituen. Arizmendiko Santa Teresa gunekoek dagoeneko ohitura bilakatu dute San Isidrotan danborrak hartu eta kalejira egitea. Musakolako kaleak girotzeaz gain, sanisidroak gain-gainean zeudela iragarri zuten. Asteburuan, berriz, beste ekitaldi asko izan ziren. Egunean zehar gaztetxoendako eta auzoko nagusiendako ekitaldiak izan ziren eta gauean, giro ederra kalean. Nagusien argazkiak zapatu goizekoak dira. San Isidro elizan goizeko meza entzun eta gero, luntxa egin zuten. Eta orduan atera genituen argazkiak. Eliza parean koadrila ederrari lehenengo eta luntxa egitera joan zirenei gero. Horrez gain, baina, beste ekitaldi batzuk ere izan ziren: umeendako jolasak, lore erakusketa, dantzaldiak eta herri-txikiteoa, besteak beste. Hori bai, gauean ederto egoten zen kalean, bestetan baino jende gutxiago ibili zen-eta.




EGUZKIGRAF →
inprimategia

Industrialdea F-0-4
Tfnua.: 791844
Faxa: 792941

ARETXABALETA

Aretz
Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA
Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

BESAIDE MENDI ELKARTEA/ Nafarroara egindako mendi irteerakin hasi eta bukatuko da Mendi Astea; astean zehar diapositiba emanaldiak izango dira

Bihar hasi eta hurrengo zapatuta arte egingo du Besaidek 2004ko Mendi Astea

XABIER URZELAI

Besaide Mendi Elkartearen Mendi Astea oraingo asteburuan hasiko da. Besaidekoak Nafarroa aldera joango dira, Ori, Arbaiun eta Irunberriko arroilak bisitatzera. Astean zehar, berriz, diapositiba emanaldiak izango dira, eta datorren asteburuan betaranoen martxa egingo dute.

Oraingo astean, Besaideko Mendi Asteari esker mondragoetarrek eskura izango dituzte mendian bizi izaten diren abentura eta sentsazio guztiak. Oraingo asteburuan sentsazio horiek zuzenez bizi ahal izango dituzte Ori, Arbaiun eta Irunberriko arroila ikusgarriak ikustera joaten animatzen direnek. Asteburua egingo dute Nafarroa aldean, eta Izaban igaroko dute biharko gaua. Hori, baina, Mendi Astearako Besaidek antolatu duen lehenengo ekitaldia baino ez da, astean zehar ere egongo da eta zerekin gozatu.

Astelehenetik egubakoitzera arte diapositiba emanaldi ezin interesgarriagoak antolatu dituzte Besaideko lagunek. Diapositiba emanaldi guztiak 19:00etan izango dira, Monterronen.

ASTELEHENEAN, 'MENDIAK ETA LURRAK'

Astelehenean, Joseba Egibarrek egingo duen diapositiba emanaldiak erakutsiko du mendi eta paraje ederrez gozatzeko ez dagoela zertan Himalaiara joan, Euskal Herrian paraje eder asko daude-eta. *Mendiak eta Lurra* izeneko emanaldiak 40 minutu iraungo du, eta 500 argazki erakutsiko ditu. Joseba Egibarrek Euskal Herriko mendi, paraje, baserri, ohitura eta landaretza erakutsiko ditu.

MARTITZENEAN, 'MUNDUARI ITZULIA BIZIKLETAN' ENKO ETXEBARRIETAK

Martitzenean, *Munduari itzulia bizikletan* izeneko diapositiba emanaldia egingo du Eneko Etxebarrieta gasteiztarrek. Eneko Lehen Hezkuntzako irakaslea da, eta argazkigintza eta bizikletan ibiltzea atsegin du. Miyuki Okabe lagunarekin batera egundoko esperientzia bizi berri du: lau urte eman ditu munduari itzulia egiten, bizikletan.

Eta, abentura horren berri emango du astelehenean egingo duen ikus-entzunezkoan. Enekok bidaian egindako 300 argazki erakutsiko ditu eta urte horietan guztietan bizi izandakoak kontatuko ditu. Ikus-entzunezko horren helburuetako bat da erakustea hemengo kultura ez dela munduan bakarra, eta gainontzeko herrialde eta kulturak oso aberatsak direla. Horrez gain, egileak argi utzi gura du horrelako



Diapositiba emanaldietan irudi ikusgarriak ikusi ahal izango dira.

BESAIDE MENDI ELKARTEA

Eneko Etxebarrietak bizikletan eman dio bira munduari, eta lau urte behar izan ditu horretarako

abentura bat egiteko ez dela behar ekipamendu garestirik.

EGUAZTENEAN, 'LURREKO LURRALDE HOTZETAN BARRENA'

Eguazteneko diapositiba emanaldia Juan Vallejo gasteiztarrek

Ina Rufok azalduko du Europa bizikletan, piraguan eta eskiatzen nola gurutzatu zuten

egingo du. Juan Vallejo ezaguna da *Al filo de lo imposible* telebisita saioko kolaboratzaile delako, eta espedizio ezagunetan parte hartu duelako. Besteak beste, Yosemite (AEBak), eta Yukonen (Kanada) izan da eskalatzen;

Eneko Pouk kontatuko du Kaliforniaren dagoen 'Kapitain' horma nola igo zuten

baita ere, nola ez, Himalaian, bost zortzimilako egin ditu-eta. Horrez gain, hainbat abentura interesgarri bizi izan ditu, Groenlandia eta Patagonia leraz zeharkatu ditu-eta. Eta, abentura horien gainean egingo du berba eguaztene-

an egingo duen diapositiba emanaldian.

EGUENEAN, 'TRANSEUROPA'

Eguen arratsaldean Oreretako Ina Rufo izango da Monterronen. Inak eta lagun batzuek Europa osoa zeharkatu zuten eskiak, piraguan eta bizikletak erabilita. Ipar Lurmuturrean hasi eta Tarifan amaitu zuten ibilbidea. Lehenengo hilabetea Norvegian egin zuten, eta gero, Suediako itsasbazterrak piragua gainean igarotzen zituzten. Alemaniara iritsi zirenean bizikletak hartu eta 2.500 kilometro geroago Tarifan ziren. Bost hilabete behar izan zituzten bidaia hori egiteko, eta denbora horretan bizitakoaz eta ikusitakoaz gozatu ahal izango da eguenean.

EGUBAKOITZEAN, 'HORMA HANDIENAK ERA ASKEAN' ENKO POUK

Diapositiba emanaldiekin amaitzeko, egubakoitzean Eneko Pouk izango da Monterronen. Eneko eta Iker Pou anai gasteiztarrek AEBetan dagoen *Kapitain* horma ezagunean egindako igoeraren kontakizuna izango da egubakoitzeko emanaldia. Eskaladako irudi bikainez eta Kaliforniaren dagoen Parke Nazionalaren ikuspegi ederrez gozatu gura duenak egubakoitzean hitzordu garrantzitsua du. Pou anaiak hilabete izan ziren igoera hura egin guran, eta hainbat saiakera egin eta gero, seguruenik horma bati era askean egin zaion igoera onenetakoa lortu zuten.

BETERANOEN III. MARTXA

Mendi Astea Besaideko betaranoekin amaituko da, hurrengo zapatuan Ibardin-Larrun-Lizuriaga ibilbidea egingo dute-eta Goizean hainbat kilometro oinez egin eta gero, ondo baino hobeto bazkaldu, eta arratsaldean txikiteoa egiteko aprobetxatuko dute. Jakin badakigu 300 lagun inguru animatu direla mendi irteera horretan esku hartzeko. Modu ezin hobea da aurtengo Mendi Astea ondo baino hobeto amaitzeko.

Amets egiteko astea

Astelehenetik egubakoitzera arte antolatu dituzten diapositiba emanaldietan amets egiteko aukera ezin hobea eskainiko du Besaide Mendi Elkartek. Askoren ametsak direnak gutxi batzuek errealitate nola egin dituzten ikusi ahal izango da Monterronen. Begiak itxi eta berriro zabaldu orduko, topo egingo dugu Himalaiako zortzimilakoekin, Kaliforniako horma ezagunetan egindako eskaladekin, leretan zeharkatutako

lurraldeekin, piraguan, bizikletan eta eskiatzen ezagututako kontinenteekin, bizikletan munduari bira eman diotenekin, eta, urrun joan barik, Euskal Herrian dauden paraje ikusgarriekin.

Abentura horiek guztiak zuzenez bizi izango litzateke ederrena, baina aukerarik ez dutenek edo horrelakorik egitera ausartzen ez direnek astelehenetik egubakoitzera abentura egarria neurri

batean asetzeko modua izango dute. Eta, horrelakoren bat egiteko asmoa daukanak Mendi Asteko ekitaldi horietan aurkituko du buruan darabilen hori egiteko azken bultzadaxoa. Eta, beste behin, eskerrak eman behar Besaideko lagunei. Azken baten, eurei esker eta astebe- tez behintzat egunerokotik irten eta munduko paraje askotara bidaiatzeko aukera emango digutelako, amestetan baino ez bada ere.

ESKUBALOIA

AGRk Bizkaian jokatu du asteburuan, baina datorren astean erabakiko da guztia

Oraingo asteburuko norgehiagokak garrantzia badu ere, datorren asteburuan etxean jokatu duten partiduan erabakiko da igoera fasea

XABIER URZELAI

AGRk bikain menderatu zuen joan den astean kontrario zuzena zen Erromo taldea, eta orain, bi partidu geratzen badira ere, AGR Arrasatek kontrario bakarra du: Gasteizko Corazonistas taldea. Lehenago, baina, Burdin Trapagaren etxean jokatu behar dute.

Arrasateko taldeari azken esprinta egitea baino ez zaio geratzen, baina azken esprint horretan mondragoetarrek ezin dute kalerik egin. Hala ere, Arrasateko jokalariek hain argi dute zer egin behar duten, gaitza da kale egitea. Orain arte argi erakutsi dute ez dagoela AGR baino talde hoberik; izan ere, talde guztiei irabazi die AGRk, etxean ez bada kanpoan.

Joan den asteko garaipenak sekulako garrantzia dauka, Arrasate lehenengo posturaino igozteaz gain, Erromo atzean utzi dutelako. Baina oraindik ere lau puntu geratzen dira jokoan, eta azkeneko jardunaldian, Corazo-

nistas taldearen kontrako partidua hil edo bizikoa izango da.

BURDIN TRAPAGAREN KANTXARA

Lehen esan dugun moduan, oraingo asteburuko partidua garrantzia badu ere, datorren asteko partidua erabakiko da guztia. Hala ere, AGRk Burdin Trapagaren etxean emaitza ona eskuratzen badu, gauzak asko erraz ditzake. Mondragoetarrek bi puntuko aldearekin irabazi zuten Iturripen, eta bizkaitarren kantxan irabaztea ez da erraza izango. Hala ere, Euskadiko Txapelketa irabazteko esku-eskura daukela ikusita, taldeak daukan guztia emango du, bai etxean eta baita etxetik kanpo ere.

BESTEEN EMAITZAK IKUSI BEHAR

Corazonistas taldeak, berriz, Urolaren kontra jokatu du Gasteizen, eta ikusi egin behar norgehiagoka horretan gasteiztarrek zer egiten duten. Akaso, denboraldi osoan AGRren kontrario izan denak, Urolak, orain mese-de galanta egin diezaioko.



AGR Arrasate eta Corazonistas taldeek hamabina puntu dituzte. Erromo, berriz, atzean geratu da, hamar punturekin.

ARRASATE PRESS

Mondra eta Tolosa izango dira bihar aurreko postuengatik lehian

X.U.

Bosgarren eta seigarren postuan dauden bi talde izango dira nor baino nor gehiago bihar Atxabalpen. Mondrak Tolosaren bisita izango du. Ez dago ezer jokoan, baina gora egin guran dabilta bi taldeak. Mondrak Bergaran baino hobeto jokatu beharko du Tolosaren kontra.

Bi jardunaldi baino ez dira geratzen preferente mailako txapelketa amaitzeko, eta aurrealdean eta atzealdean dauden taldeek zer jokatu badute ere, Mondrarendako eta Tolosarendako, besteak beste, ez da emozio handirik geratzen. Egia esan, ez da komeni emozio handirik, batez ere, jaitsiera postuak hur daudenean.

PARE-PAREAN DAUDEN BI TALDE

Bihar Atxabalpen jokatu duten partidua, baina, erakargarria izan daiteke. Sailkapenean ondo ondoan dauden bi taldek neur-tuko dituzte indarrak, eta sailkapenari kasu egingez, badirudi norgehiagoka parekatua izan daitekeela. Gainera, Mondrak Bergaran erakutsitako joko gabezia konpondu egin gura izango du, eta Tolosa, joan den astean etxean gal-



AITOR LIZARRALDE


Mondraren eta Tolosaren artean bi puntuko aldea baino ez dago.

du eta gero, garaipen bila etorriko da. Askotan, ez da bestelako arrazoirik behar zeingehiagoka txukuna ikusteko.

Gainera, azkeneko asteotan behin eta berriro esan dugu ibarreko lau taldeek badutela helburu komun bat: ibarreko talde onena izatea. Dagoeneko argi dago Aloña Mendi eta Bergara atzean geratuko direla, baina

oraindik ere lehia polita egon daiteke UDAREN eta Mondraren artean. UDA ondo aurreratu zen joan den astean, Zestoari 0-3 irabazita. Mondrak, berriz, ezer gutxi egin zuen Agorrosinen, eta hala ere Josu Zubiaren mutilek puntu bat ekarri zuten. Horrez gain, partidu egokiak dira minutu gutxi izan dituzten jokalariek denboraldia gustura amaitzeko.

FOTOKIROLA



AUKEA sariak banatu zituzten domekan

Domeka goizean banatu zituzten 2003ko AUKEA sariak. Lehenago, baina, gimnasia erritmikoko erakustaldia izan zen. Kirolari onenaren saria Isa Casadori eman zioten, eta anaiak jaso zuen saria. Taldekako saria, berriz, Mondrarendako izan zen, eta presidentea, Jose Luis Ezkurrak, jaso zuen saria. Azkenik, Arantzazu Zubiarendako izan zen aipamen berezia, 19 urte egin ditu-eta Arrasateko gimnasia taldea entrenatzen. /X.U



Txapelketan, senior, junior, kadete, infantil, multikirol eta aurrekiroleko neska-mutikoez hartuko dute esku.

ARTXIBOA

SASKIBALOA

Ehun talde baino gehiago izango dira 3x3 saskibaloia txapelketan

Bihar 10:00etan hasiko dute txapelketa Laubide plazan; 12 kantxa jarriko dituzte

XABIER URZELAI

Bihar egingo dute Arrasate Kirol Proiektuak eta Ointxe Arrasate Saskibaloia Taldeak 3x3 Saskibaloia Txapelketa. Joan den urtean moduan, aurten ere arrakasta handia izan du txapelketa horrek, 105 talde eman dute-eta izena.

Bihar gura beste saskibaloia izango da Laubide plazan, 3x3 Saskibaloia Txapelketa egongo da-eta jokoan. 10:00etan hasita, Arrasateko ehunka gazteok ederto pasatzeko aukera izango dute. Atera kontuak: talde bakoitzean

lau jokalarik egon behar dute, eta 105 talde eman badute izena, 400 neska-mutikotik gora egongo da bihar saskibaloian jokatzeko. Goizeko saioak hiru ordu iraungo du: 10:00etatik 13:00ak arte. Bazkaltzeko atsedenaldia egingo dute, eta 15:30ean ekingo diote berriro ere txapelketari. Azkenik, 19:00ak aldera jokatuko dituzte finalak, 20:00ak aldera amaituko da-eta txapelketa.

TAU BASKONIAREN LAGUNTZAREKIN
Biharko txapelketa antolatuko Arrasateko Saskibaloia Taldeak eta AKPk Tau Baskonia Saskibaloia Taldearen laguntza izango

dute. Talde gasteiztarrak, besteak beste, horrelako txapelketa bat antolatzeko beharrezkoa den materiala ekarriko du. Sariei dagokienez, txapelketa irabazten duen taldeak ez du nolana izango saria izango, besteak beste, Gasteizko 3x3 Saskibaloia Txapelketa esku hartzeko gonbidapena jasoko du-eta.

Jakin, gainera, 3x3ko norgehiagokez gain, jaurtiketa libre eta hiruko jaurtiketen lehiaketa ere egingo dutela. Horrenbestez, saskibaloia atsegin duenak aukera paregabea du bihar, gura beste norgehiagoka egongo dira-eta. Modu ona harrobia lantzeko.

TXIRRINDULARITZA

Ekainaren 10ean Arrasaten amaituko da Emakumeen XVII. Bira

Ekainaren 10ean hasiko da Emakumeen XVII. Bira, eta lehenengo etapa Arrasaten amaituko da. Hasieran, etapak Arrasaten hasi eta amaitu behar zuen, baina azkenean hainbat aldaketa egin dituzte ibilbidean, eta Arrasaten amaitu egingo da lehenengo etapa.

Lehen etapa horretan, ziklistak Elorrio aldetik etorriko dira Epeletik jaitsi eta Arrasate gurutzatu eta gero berriro Kanpanzar igo eta jaitsiko dute. Garibai etorbidean egongo da helmuga.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

Etterat - Dribling	1-7
Lasagabaster - Betraye	8-4
Saukelu Scream - Iriztu Taberna	7-4
AC Surcos - You Know!	4-5

PARTIDUAK

MAIATZAK 22, ZAPATUA. EPAILEAK	
11:50: Etterat - Saukelu Scream	Antola.
13:00: Lasagabaster - Dribling	Antola.
MAIATZAK 23, DOMEKA. EPAILEAK	
11:50: You Know! - Saukelu Scream	Antola.
13:00: Iriztu Taberna - AC Surcos	Antola.

SAILKAPENA

A MULTZOA	P	J
1. Lasagabaster	2	1
2. Dribling	2	1
3. Betraye	0	1
4. Etterat	0	1
B MULTZOA	P	J
1. Saukelu Scream	2	1
2. You Know!	2	1
3. AC Surcos	0	1
4. Iriztu Taberna	0	1

JOAN DEN ASTEAN HANKA-SARTZEA

FINAL-LAUDENAK EZ, HIRUGARREN FASEA DAGO JOKOAN

Zaldibarko antolatzaileek barkamena eskatu gura diete txapelketan dabilen taldeei, joan den astean hainbat hanka-sartze egin zituzten-eta. Joan den asteo jardunaldi partiduak gaizki jarri zituzten, eta ondorioz, Zaldibarko txoko honetako datuak ere ez ziren zuzenak. Eta, horrez gain, final-laudenak beharrezko hiru garren fasea da jokoan dagoena. Horregatik guztiagatik, barkamenak bai antolatzaileen eta baita ARRASATE PRESEN partetik, jakin badakigu-eta jokalariren bat edo beste ez zela partidura azaldu hemen azalduko datuak gaizki zeudelako.

Hirugarren faseko sorpresa handienetako bat Etteratek jaso zuen jipoi izan zen. Dribling-ek zazpi gol egin zizkion ordezko atezainarekin jokatu zuen Etteratek, eta, argi dago atezaina ez dagoenean taldeak izugarri igartzeko duela. Gainontzean, Betrayerekin, AC Surcosek eta Iriztu Tabernak ere ez dute hirugarren fasea ondo hasi. Izango dira gauza sailkapenean aurrera jotzeko?

KIROLAGENDA

PILOTA

Urretxuren kontra bihar, Uarkapen, 11:00etan

Arrasateko pilotariak bihar 11:00etan jokatu dute Herri Arteko Txapelketako itzuliko partidua. Joan den astean, Urretxun, kadeteek 22-5 galdu zuten; gazte mailakoak 2-22 nagusitu ziren eta seniorrek 22-4 galdu zuten. Senior mailako Aitzol Lazkanoren esanetan, baina, ez dago guztia galduta: "Senior mailako partiduan markagailuak erakusten ez badu ere, ez genuen batere gaizki jokatu. Eurak, baina, oso ondo ibili ziren, egun on horietako bat izan zuten-eta. Hala ere, gu oso animatuta gaude biharko partidurako".

TRIATLOIA

Aurten ez dute Debagoieneko Triatloia egingo

Aurreko hiru edizioetan arrakasta handia izan badu ere, Antxintxika Debagoieneko Triatloia Taldeak erabaki du ekainaren 5ean egin behar zuten Debagoieneko triatloia proba bertan behera uztea. Taldeko presidentek, Jose Mari Barrenak, GOITBri azaldu dio proba ez egitearen arrazoia: "Proba egiteko sei mila euro behar ditugu, eta nekez lortuko dugu diru hori. Horrez gain, proba antolatzeko 100 lagun ingururen laguntza behar dugu, eta ez dugu horrenbeste jende batu". Hala ere, datorren urtean berriz ahaileginduko dira proba hori antolatzen.

FUTBOLA

Mondrako zuzendaritza beste urtebetez

Mondrako zuzendaritzakoek denboraldian zehar argitu zuten aurtengo urtea izango zela taldea zuzentzen egingo zuten azkena, baina aditzera eman dutenez beste urtebete egingo dute. Taldea zor barik utzi gura dute, eta aurten aurreikuspenak ez dituztenez bete, beste urtebete egingo dute taldea zor barik uzteko. Hasieran uste zutena baino talde bat gehiago izan dute, eta horrek gastu batzuk eragin ditu. Mondrak ez du diru sarrera handirik, eta kontuz ibili behar izaten dute gastuekin. Datorren urtean ahaileginduko dira zorra kitatzen.

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Tolosa	Preferentea. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen.
Mondra - Bergara	Ohor. Gazteak. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.
Arrasate - Iksaberri	Big. Gazteak. Domekan. 11:45. Atxabalpen.
Arrasate - Baskonia	Ohor. Kadeteak. Zapatuan. 10:00. Atxabalpen.

SASKIBALOA

Easo B - Arrasate	Juniorrak. Zapatuan. 18:00. Bidebietan.
3x3 Saskibaloia Txapelketa	Zapatuan. 10:00. Laubide plazan.

ESKUBALOA

Burdin Trapaga - AGR Arrasate	Igoera fasea. Domekan. 11:30. Urtuelan.
--------------------------------------	-----------------------------------------

Urnietako - Arrasate

Territ. Kopa. Domekan. 11:30. Urnietan.
Arrate - Gatz Museoa
Gazteak. Mut. Zapatuan. 16:15. Ipuruan.
Arrasate - Zahara Kafetegia
Gazteak. Neskak. Zapatuan. 16:00. Musakolan.
Pulpo - Gatz Museoa
Kadeteak. Kopa. Zapatuan. 16:30. Lubakin.

PILOTA

Arrasate - Urnieta
Herri Arteko Txap. Zapatuan. 11:00. Uarkapen.

MENDIA

Besaideren Mendi Astea
Astelehenetik egubakoitzera arte diapositibak emanaldiak. Monrerronen. 19:00etan.

E, TXO!

GUREGAIK/ UDAN BOLUNTARIO LANAK

Euskal Herria Zuzenean jaialdian laguntzeko deialdia egin dute

IKER BARANDIARAN

Topagunearen Gazte Sailak Euskal Herria Zuzenean jaialdian laguntzeko deialdia egin du. Jaialdia uztailaren 2an, 3an eta 4an egingo dute, eta interesatuek AEDra jo beharko dute izena ematera.

Euskal Herria Zuzenean jaialdia 1995a ezkeror urteror egin dute. Azken urteotan jaialdiak 30.000 bisitari bildu ditu, eta mila laguntzailek esku hartu dute. Iazko ediziora arte jaialdia Arrosan egin duten arren, aurten Hazparnen egitea erabaki zuten. Zoriturrez, oztopoak ipini zizkieten, eta azkenean Zuberoako Indauze Mendin egingo dute.

LAGUNTZEKO HIRU TXANDA

EHZ dirulaguntza bariko dinamika burujabea da, minorizaturiko herri eta kulturen aldeko topagunea. Horretarako, hainbat ekitaldi antolatzen dituzte: antzerkia, dantza, berbaldiak, erakusketak, umeendako txokoak eta kontzertu ugari.



Azken urteotan, Arrasateko gazte ugari joan dira Euskal Herria Zuzenean jaialdira laguntzera.

Laguntzera joan gura dutenek hiru aukera izango dituzte: ekainaren 28tik uztailaren 4ra muntatze lanak egin eta jaialdian esku hartu; uztailaren 2tik 7ra

jaialdian esku hartu eta desmuntatze lanak egin; eta uztailaren 2tik 4ra jaialdian lan egin.

Laguntzaileek ekainaren 4a baino lehen eman beharko dute

izena AEDn, eta 23 euro ordaindu beharko dituzte. Matrikula horren barne egongo dira mantenu osoko ostaturia, aseguru eta garraioa.

BI KONTZERTU ASTEBURUAN GAZTETXEAN

AGAKOK —Arrasateko gazte batzarra— asteburoroko musika kontzertuak antolatzen jarraitzen du. Gaur, egubakoitza, Putoamoak Matematiketan eta Txato Plato taldeek jardungo dute. 22:30ean izango da, doan. Eta bihar, zapatua, Venereal disease, Nuuk eta Dratsab taldeek joko dute. Honako hau ere 22:30ean izango da, eta doan.

UDALEKUETAN IZENA EMATEKO EPEA

Txatxilipurdi elkarteak udaleku itxiak eta irekiak antolatu ditu uztailerako. Irekiak Arrasaten egingo dituzte, eta 2 eta 10 urte bitarteko ume eta gazte-txoendako izango dira.

Udaleku itxiak, berriz, 9 eta 16 urte bitarteko gazte-txoendako izango dira. Egonaldi horiek Beintzan, Orion eta Kantabrian egingo dituzte. Baten zein bestean izena emateko, jo Txatxilipurdi elkartearen egoitzara ekainaren 18a baino lehen.



IRUDI SPORT

Uarkape 2, behea. ARRASATE.

Tel.: 943 77 20 87

irudisport@telefonica.net

Ordutegia: 07:30 - 21:30

Ekainean hasiko gara

Animatu, zatoz eta proba ezazu eskola bat doan

BODY JAM hainbat mugimendu eta estilo-ren nahasketa zoragarria da: funka, groovea, erritmo latindarrak, karibetarrak, street dancea, technoa, hip-hop, discoa, jazz...

BODY COMBAT

BODY JAM



Kale animazio talde asko ibiliko dira kaleak girotzen.

PEGASUS MERCADOS TEMATICOS

ERDI AROKO JAIA/Bihar eta etzi, Arrasateko alde zaharrean

Alde zaharra Erdi Aroko Azoka erraldoi bihurtuko da

IKER BARANDIARAN

Bihar eta etzi, zapatua eta domeka, Erdi Aroko I. Azoka egingo dute Arrasateko alde zaharrean. Udaleko Kultura Sailak antolatu du, 23 mila euro gastatuko ditu, eta azoka arrakastatsua izaten bada, urtero antolatzeke asmoa du. Ekitaldi ugari egingo dituzte.

Udaleko Kultura Sailak ekimen garrantzitsua antolatu du astebururako. Bihar eta etzi, Erdi Aroko I. Azoka egingo dute Arrasateko alde zaharrean. Hain zuzen ere, Seber Altube, Herriko Plaza, Erdiko kalea eta Iturriotz kalea Erdi Aroko giroan murgilduko dira. Kale horiek apainduta egongo dira, mota guztietako salmenta postuak ipiniko dituzte eta kale animazioa egongo da. Egitarau osatua antolatu dute. Izan ere, Udalak 23 mila euro gastatuko ditu, eta ibarreko eta kanpoko herritar asko gerturatzea gura du. Hori bai, aurtengo azokak arrakasta izaten badu, urteroko hitzordu bilakatu gura dute.

ESKULANGINTZAKO SALTOKI UGARI

Bi egunotan eskulangintzako saltoki ugari ipiniko dituzte. Asko kanpotik etorritakoak izango dira, baina Arrasateko eta ibarreko artisauak ere izango dira.

Besteak beste, Erdiko Kalean urrea, zilarra eta erretxina lan-

tzen dituztenak, gozogileak eta beste batzuk egongo dira.

Herriko Plazan, beira eta kateak lantzen dituztenak, abarketagileak eta beste egongo dira. Horrez gain, ogi-laba, taberna-gaztelua eta *haima* —tea hartzeko denda— ere ipiniko dituzte.

San Juan Batailatzailea elizaren inguruan, arto-opilak eta *falafell*-a jateko aukera izango da. Baita honako eskulangileak ikusteko ere: kopiatzaileak, paper grabatua lantzen dutenak...

Iturriotz kalean, besteak beste, halako ekoizpenak eskuratu ahal izango dira: xaboiak, esen-

tziak, banbua, zinginarriak, ezpatak, azkartasun-jokoak, intsentsua, txokolata eta beste batzuk.

Horrez gain, Seber Altuben, umeendako jokoak, zeramika-tornua eta txotxongiloak egongo dira.

KALE ANIMAZIO UGARI

Alde zahar guztia ezkutuz apainduta egongo den arren, Udalak kale animazioa gehitu gura izan du. Udalak herriko hainbat kultura taldeekin batzarrak egin zuten, eta horietako batzuek esku hartuko dute: Arrostaitz eta Lore Gazteak taldeetako dantzariak, txistulariak, erraldoi eta buruhandiek eta dultzaineroek.

Horrez gain, azokarako propio ekarritako beste protagonista batzuk ere izango dira, sasoi harekin zuzenean lotuta daudenak. Ikusgarrienak suge-sorgintzailea, akrobatak eta falkoneria —hegazti harrapariak— erakustaldia izango dira.

Horiez gain, Cremallera antzerki taldeak hainbat ikuskizun egingo ditu kalean bertan; kalejira eta perkusio taldeak ekarriko dituzte; El Circo de los Chiflados taldeak eta El Gran Rufusek esku hartuko dute, eta musika taldeak ere izango dira. Gauean, su artifizialak eta musika uztartzen dituen ikuskizun ibiltaria egingo dute. Ekitaldiek goizetik gauera arte iraungo dute, bi egunotan.

Zapatuan eta domekan, goizetik gauera arte hainbat ikuskizun egingo dituzte

Alde zaharreko kaleak langintza bitxiz osatutako saltokiz beteta egongo dira

Al Andalus elkarte XV. Kultura Astea ospatzen dabil

I.B.

Al Andalus, Arrasateko andaluziarren kultura elkarteak, ospakizunetan murgilduta dago astelehena ezker. Maiatzaren 17tik 23ra arte, ekitaldi ugari egingo dituzte Zigorrolan duten egoitzan.

Arrasateko Corazon de Encinak, extremadurarren elkarteak, orain dela gutxi ospatu du kultura astea. Eta Al Andalus, Arrasateko andaluziarren kultura elkarteak, dagoeneko hasi da ospakizunetan.

Kultura astea ospakizunetan joan den astelehenetik maiatzaren 23ra arte iraungo dute. Astelehenean, erretiratuen omenezko eguna egin zuten. Iluntzeko zortzietan, elkarteak bazkide zaharrenek luntxa izan zuten, eta horren ostean dantzaldia egin zuten. Han batutako erretiratuak dantzan gustura ibili ziren.

Martitzenean, Al Andalusko bazkideek egindako postreen dastatzea izan zuten. Eta eguaztenean, elkarteak batzarrak bazkide guztiendako luntxa egin zuten.

Eguenean, umeen eguna ospatu zuten. Horretarako, hainbat joko izan zituzten eta gaztelu puzgarriak ipini zituzten. Eta buka-

eran, batutako ume eta gaztetxo guztiek txokolate-jana egin zuten.

ASTEBURUAN EZIN ASPERTU

Aste bukaeran ekitaldi mordoak egingo dituzte. Gaur, egubakoitza, flamenko saioa egingo dute. Hala, gaueko hamarretan, Montse Perez, Sebastian Fraile, Gabino Carmona, Vitorio Hernandez eta Mari Jose Perez abeslariak eta Javi gitarra jotzaileak jardungo dute.

Bihar ere, zapatua, hainbat ekintza izango dira. 13:00etan, ohorezko topa egingo dute Extremadurako ardoarekin, eta hainbat lagunak sevillan dantzatuko dituzte. 19:30ean, hainbat taldek musika ikuskizuna egingo dute, eta 22:00etan, herri afaria izango dute. Afalostean, dantzaldia egingo dute Memphis hiru-kotarekin.

Etzi, domeka, 13:00etan, parillada egingo dute, egoitzaren goialdean. 18:30ean, elkarteak bazkide Rafael Gomezek *Gastronomia en la campiña*-ren gaineko berbaldea egingo du. Horren ostean, Andaluziako ekoizpenen erakusketa eta dastatzea eta barraskilo-jana izango dituzte. 20:00etan, jaia bukatzeko, elkarteak antzerki taldeak sainete ikuskizuna egingo du.

Tarantinoren azkeneko filma eta beste kulturen gainekoak

I.B.

Gaur, egubakoitza, zineklubean, talibanen sasoiko *Osama* filma emango dute. Bihar, etzi eta astelehenean, Tarantinoren azken filma, *Kill Bill*, emango dute; eta domekan, gaztetxoendako *Unibertsolariak*.

Asteburu honetan ere, egunero filmak emango dituzte Amaia Udal Antzokian. Eta horietako bat zuzendari polemiko baten azken filma izango da.

Gaur, egubakoitza, zinekluba izango da, eta *Osama* filma emango dute, 20:30ean. Siddiq Barmak zuzendu du, eta 83 minutu irauten du. Talibanek Afganistanen boterea hartu zutenean, Barmak zuzendariak Pakistanera ihes egin zuen. Filmean esku hartzen duten aktoreak ez dira profesionalak, eta filmak oso sari garrantzitsuak irabazi ditu.

Benetako gertaera baten oinarrituta dago. Neskatila batek talibanen garaian eskolara joan ahal izateko mutil itxura hartuko du. Horrek beldur handia sorraraziko dio.

TARANTINOREN AZKENEKO LANA

Bihar, zapatua, etzi eta astelehenean, *Kill Bill* filma emango dute. 111 minutu irauten du eta Quentin Tarantino zuzendariaren

azkeneko filma da. Honako hau filmaren lehenengo zatia da. Tarantinok film luzeegia egin zuen, eta horregatik bi filmetan banatzea erabaki zuten. Asteburuan lehenengo zatia emango dute.

Ezezagun batzuek ezkontza bateko gonbidatu guztiak hil egingo dituzte, baina emazteak koma-egoeran geldituko da. Bere onera etortzen denean, mendeak egin gura izango du. Biolentzia jositako *thriller*-a da, eta honako zinema generoei omenalditxo egiten die: *spaghetti western*, borroka-arte, eta beste batzuek.

Protagonistak honako hauek dira: Uma Thurman (*Pulp Fiction*, *Los Vengadores...*); Lucy Liu (*Los Angeles de Charlie*, *Chicago...*); Daryl Hannah (*Un paseo para recordar*, *Conflicto de intereses...*) eta beste batzuk.

SAHARAREN GAINEKO FILMA

Etzi, domeka, gaztetxoendako *Unibertsolariak* animazio filma emango dute, 17:00etan.

Datorren egubakoitzean, maiatzaren 28an, *Cuentos de la guerra saharawi* filma emango dute. 96 minutu irauten du eta Pedro-Perez Rosado valentziarrak zuzendu du.

Sergi Calleja soldadu desertorea da, eta Saharako inbasioa hango herritarrekin biziko du.

ONDAREA/ Etzirako, domeka, AEDk eta Athlonek ibilaldi polita antolatu dute

Mugarritz mugarri, herriko inguruak ezagutzera eman

IKER BARANDIARAN

Etzi, domeka, AEDk, Athlonen laguntzarekin, ibilaldi bat egingo du, *Mugarritz mugarri Arrasate ezagutzen* leloarekin. Goizeko bederatzietatik bazkal ordura bitartean egingo dute ibilaldia, eta, besteak beste, hainbat kobazulo ikusiko dituzte.

1998an AEDk *Mugarritz mugarri Arrasate ezagutzen* ekimena sortu zuen. Helburua zen Arrasateko udalerrria ezagutzera, herriko mugarrietatik ibiliaz, eta, horrela, udalerriko paisaiaren, ekologiaren eta historiaren ondarea bere horretan ikustea. Arrasateren azalera osoa irteera bakarrean egitea ezinezkoa denez, hainbat etapatan egitea erabaki zuten.

Are gehiago, ekimen horrek mendian domekero ibiltzen ez den jendea ere erakarri gura zuen, eta horregatik ez dituzte ibilbide aldatuak egiten.

Denborarekin, ibilbideak zertxobait aldatu dira; gaur egun, ez dituzte derrigorrez mugarriak zapaltzen, baina Arrasateko txokoak ezagutarazi gura dituzte. Horretarako, urtean birritan, udaberrian eta udazkenean, Athlonen laguntzarekin, irteerak egin dituzte. Athloni esker, ume eta gaztetxo mordoa eta hainbat guraso batzen dituzte.

LASTER ALDATUKO DUTEN INGURUA

Etzi, domeka, udaberriko irteera egingo dute. 09:00etarako egin dute hitzordua, Urribarriko elizaren ondoan. Handik Kallamendirantz joko dute. Markulete industrialde paretik joango dira, Arteagatik, hain zuzen ere. Azpimarratu beharra dago inguru hori bere horretan ikusteko azkeneko aukeratariko bat izango dela, laster Garaia egingo dutelako han.

Udala eta Garagartza artean pista bat dago, eta handik, Isasiagaña ondotik, Kobate harrobiaren atzeko aldera joko dute. Han, Madarixa baserria zenaren hondarrak ikusiko dituzte. Horren ostean, Arlabango zubitik erreka gurutzatu beharko dute.

Handik gertu ibilbide horretako lehenengo koba ikusiko dute: Lizuetakoa, hain zuzen ere. Ezkutatuta dago, baina oso kobazulo ikusgarri eta handia da. Bertara sartzeko eta barruan ibiltzeko nahiko ondo dago. Korridore antzeko bat dauka eta horren bukaeran galeria handi bat. Galeria horrek goialdean zulo bat dauka eta horrek argia sartzen uzten du. Horregatik, koba barruan landatza dago.

Lizuetako kobatik irten ostean, Bostate baserriko hondarrak ikusiko dituzte. Ikusgarria da baserri hartatik zelako bistak



AEDren ekimen horri esker, udalerrria hobeto ezagut daiteke.

dauden; alde batetik, Kobate harrobia osorik ikus daiteke; eta bestetik, Ugarran osoa, San Andres auzoa, Aloña, Kurtzeberri...

LAMINAK ETA KOBAZULOAK

Bostate baserriko hondarretatik Lezetxikira joango dira, eta handik Kobaundira. Ez dakite kobazulo horietara sartzetik izango duten, baina duten garrantziaren gainean berba egingo dute. Hain zuzen ere, Lezetxikin oso aurkuntza garrantzitsuak egin zituen On Joxe Miel Barandiaranek.

Domekako ibilaldian, udalerriko hainbat koba interesgarri bisitatuko dituzte

Ibilaldi laua eta atsegina da, umeek, helduek eta adindunek egiteko modukoa

Kobaundin laminek kondairak izango dituzte hizpide, inguru horretan ibiltzen ei ziren-eta aha-te hankak zeuzkaten emakumezko misterioitsu haiek.

Behin kobazulo esanguratsu horiek ikusi ostean, bueltan etorririko dira. Kobatetik pasatuko dira, eta domekan lanean ibiliko ez direnez, harrobia geldo eta zarata barik aurkituko dute. Handik Garagartzara joango dira eta Markulete atzeko bidegorritik aurrera egingo dute. Antolatzaileen esanetan, bazkal ordurako, 13:00etarako, etxean egongo dira.

UDALERRIKO ONDAREA EZAGUTU

Oso ibilbide laua izango da, eta ez du ia aldaparik izango. Udalerriko mugarriak zapalduko ez dituzten arren, ibilbideak AEDren ekimenaren helburuak beteko ditu. Honako hauek, hain zuzen ere: ludikoak —mendizalatasuna—, kulturalak —herriko ondare historiko, toponimikoa eta paisaia ezagutzera— eta ekologiakoak —bideak berreskuratu eta garapenaren eraginaz jabetzea—. Antolatzaileek, AEDk eta Athlonek, ibilaldira joaten diren guztiei esku-orri bana emango diete. Esku-orri horretan jasoko dituzte egingo duten ibilaldiaren mapa eta ikusiko dituzten inguruen gaineko informazio zabala azalduta.

ELKARRIZKETA

RAMON AGIRRE/AKTOREA

“Abesteari ez diot beldurrik, ausarta naiz”

I.B.

Datorren egubakoitzean, hilaren 28an, Ramon Agirrek eta Joserra Senperenak 7 *gezur txiki* ikuskizuna egingo dute Jai Zale tabernan. AEDk eta Kultur Errotak antolatu dute. Musika eta ironia uztartuko dituzte.

Noiz hasi zinen Joserra Senperenarekin lankidetzan, eta zelan sortu zen batera lan egiteko ideia?

Orain dela hogeit bat urte, Agus Arrazolak eta hirurok antzeko zerbait egin genuen. Eta orain dela hiru urte, formatu hori berreskuratzea bururatu zitzaidan. Ideia mamitu nuenean, Senperenari deitu eta baietza eman zidan. *Ondo esan beharko* ikuskizuna prestatu genuen. Horren ostean, 7 *gezur txiki* egin dugu.

Zer ikusi eta entzungo dugu 7 *gezur txiki* ikuskizunean?

Haria gezurraren apologia da. Pasadizo batzuk kontatuko ditugu, guztiak gezurraren gainean, ironiarekin eta umore handiarekin. Egiten dugun musika oso jantzita dago, eta hainbat estilotako kantuak eskainiko ditugu: pop, blues... Joserra Senperenak

pianoa joko du eta nik, berriz, berba egingo dut, abestu eta gitarra. Ikuskizunak ordu pasatxo iraungo du. Inprobisaziorako tartea ere badago.

Zuk, besteak beste, antzerkian eta telebistan lan egin duzu, baina musika oso gustuko duzu, ezta?


Bai, musika oso gustuko dut. Antzerkian abestea egokitu izan zaigunean, askotan Ane Gabarainek eta biok abestu behar izan dugu. Halakotan gustura ibiltzen naiz. Horrez gain, beti izan dut gitarra etxean, baina gitarra jotzen maila txikia daukat. Abesteko ausartagoa naiz.

Zuen ikuskizunetako musika Senperena da, eta hitzak zureak?

Abesti batzuen musika nirea da, nik gitarrarekin ateratakoa. Horren ostean, Senperenak abestiak moldatu eta aberastu egiten ditu. Beste abesti batzuk Senperenak dira. Hitz guztiak nireak dira.

Senperenak ibilbide handia dauka musikagintzan...

Bai, hala da. Besteak beste, honako taldeekin lan egin du: Duncan Dhu, Anje Duhalde, Minxoriak, Imanol, Jabier Muguruza, La Buena Vida, eta abarrekin.



KULTURAPILULAK

Arrasateko Musika Eskolak hainbat kontzertu antolatu ditu datozen egunetarako

Arrasateko Musika Eskolako lagunak oso pozik daude Saloun egingako kontzertuak izan zuen harrerarekin. Aspaldiko partez, irteera egin zuten, eta oso gustura bueltatu ziren herrira. Dagoeneko, kontzertuak antolatzen buru-belarri dabilta. Astelehenean, maiatzaren 24an, eskolako gitarra ikasleek kontzertua egingo dute Musika Eskolan. Kontzertua 19:15ean izango da, eta ikasle horien arduraduna Asun Azurmendi da. Eguenean, maiatzaren 27an, klarinete, saxofoi eta flauta ikasleek kontzertua egingo dute eskolan. Ikasle ugari esku hartuko du, eta kontzertura joaten direnei hiru instrumentu horiek erakutsiko dizkiete.

Datorren egubakoitzean, maiatzaren 28an, beste ikasle batzuek piano kontzertua egingo dute. Emanaldi hori 18:30ean izango da. Gura duten guztiek joan ahal izango dute.

BEHEKODENDATIK

Jose Luis Ezkurra

ERRASTI KRISTALDEGIA

XABIER URZELAI

Jose Luis Ezkurra ezaguna da herrixen, beste gauza batzuen artien Mondrako presidentie dalako. Jose Luisek hogeita lau urte inguru daroie Errasti kristalerixen; lehenau Bergaran ibili zan lanien. Oin, almazen barrixen egitten dau lan, Olarte kaleko lokala aspaldi geratu zan-eta txiki.

Ze falta jako Mondragueri?

Danok esaten daue aparkalekuek biher diela. Ba, neuk uste dot automobil larregi dauzela.

Eta, ze dauko ona?

Gauza asko... Dauen girue.

Ze falta jatzu zeuri?

Denbora librie.

Eta, ze dauketzu sobran?

Askotan, ardurak.

Pelikula bat. Liburu bat. Musika talde bat.

Ez naz pelikula-zalie / Liburuek be gutxi leiduten dittut; bi edo hiru egunkari leiduten dot egunero / Luis Mariano gustau izen jat beti.

Momentu honetan nora juengo zitzake gustora?

Oin? Iñora be ez, hamen oso ondo nau. Argi dauketena da datorren urteko Gabonetan Kanarietara juengo nazela barriro be.

Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Gutxitan egitten dot, ez jatelako bape gustetan: plantxie.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Emaztiekin.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Tamalez, automobille.

Denbora librien ze egitten dozu?

Pasietie gustetan jat.

Kapritxo bat.


Illobie da oin dauketen kapritxorik haundixena.

Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.

Nafarroa edo Errioxa.

Ze leiduko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Hamen daukoun problema danak konpondu egin diela.



XU.

“Mondrak bi edo hiru urte barru futbol zelai barrixe eukiko dauela pentsetan dot, Musakolan”

Pentsetan neuen Mondra hirugarren maillara igo dala esan biher zeuela.

Hori lehenau edo geruau baiñe etorriko da. Datorren urtien hori izen biher da geure helburue.

Atxabalpen badakigu ze lan egitten dozun, eta kristalerixan?

Azkeneko urtietan, hamen egitten doten lana asko aldatu da. Oin, klientiekin tratuen egin eta gauzak bideraketan ahalegingetan naz.

Kristalerixan almazen barrixe dauketzue; eta, futbol zelai barrixen notiziarik bai?

Bai. Pentsetan dot bi edo hiru urte barru Mondrak futbol zelai

“Azkeneko urtietan neure lana asko aldatu da. Oin, gauzak bideraketan ahalegingetan naz”

barrixe eukiko dauela; eta gurekin batera beste kirol talde batzuk be etorriko die Musakola aldera.

Zeñek emuten dau buruko min haundixae: klientiek ala futbol jokalarixek?

Norberak buruko miñik ez badauko, bixetako batek be ez.

Entzun dogu beste urtebetez Mondrako presidente izengo zarela.

Bai. Neuk eta neure lantaldiek esan geuen taldie zor barik itxiko geuela, eta aurten lortu ez dogunez, beste urte bat egingo dogu.

Presidente moduen beste urtebete; eta, kristalero moduen?

Beste bost urte bai.

NIREBIDAIAHURA/ Ortzi Pildain

Finlandiara eta Estoniara / 2004ko martxoan

Izotz-hockeyko Finlandiako Kopako finalerdiak ikusten utzi genituen Ortzi eta lagunak joan den astean. Hurrengo egunean, eguaztenean, Estoniako hiriburura joan ziren, Tallinera: “Bidaia oso merkea zenez aprobetxatzea erabaki genuen. Itsasontziz egin genuen bidaia, eta polita zen itsasontziak izotzetan aurrera nola egiten zuen ikustea. Gurekin batera finlandiar asko zihozten. Gu turismoa egitera gindoazen, eta eurak alkohola erostera, Estonian alkohola Finlandian baino askoz ere merkeago dago-eta. Tallin asko gustatu zitzaidan; egun osoa ibili ginen hara eta hona, eta egun haietan ikusi nuen hiri politena dela esango nuke. Iluntzean, Finlandiara itzultzeko itsasontzia hartu genuenean, gurekin etorri ziren finlandiarrak erabat mozkortuta azaldu ziren”.

Eguenean Helsinki ondoan dauden uharte batzuetan izan ziren, eta gauean, presa barik erretiratzeko asmoz, kalera irten ziren: “Lehenengo, vodka berezia ateratzen zuen taberna errusiar batean izan ginen. Ez dakit berezia izango ote zen; garestia, behintzat, bazen. Han, HIM musika taldeko abeslariarekin elkartu ginen, eta berarekin izan ginen berbetan. Taberna itxi zituztenean diskoteka batera joan ginen, baina hura ere berehala itxi zuten, eta aurreko batean bezala, goizeko laurak eta gu nora joan jakin barik. Azkenean, hurrengo eguna ere aprobetxatu gura genuenez, etxerako bidea hartu genuen. Nahiz eta kalera parranda egiteko asmoz irten, ez dago aukera handirik han parranda on bat egiteko”.

Datorren asterako utziko dugu azken kapitulua. Bada go zer kontatu, besteak beste, izotzetan zuloa egin eta bainua hartu zutenekoa, neoprenozko jantzi barik, gainera.

XABIER URZELAI



Argazkian, Miren, Ortzi, Alex eta Ruben.

“Finlandiako bizilagunak Estoniara joaten dira alkohol bila”

“HIM musika taldeko abeslariarekin elkartu ginen taberna baten”

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu etal

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ELKARRIZKETA

MARI VEGA ETA JOSE MARI ARANA/DONEJAKUE BIDEAN IBILITAKOAK

“Egun beroetan azkar erretiratzeko ginen,
eta freskoetan askoz gehiago ibiltzeko ginen”

ARRASATE IRRATIA/IKER BARANDIARAN

Mari Vega eta Jose Mari Arana senar-emazte, arrasatearrek Donejakue bidea egin dute, Sevillatik irtenda. 39 egun egin dituzte, batzuetan berotan, beste batzuetan hotza pasatuz... Irratian izan ziren handik bueltan.

Zenbat egun egin dituzue bidean?

Jose Mari: Apirileko lehenengo egunean irteten ginen Sevillatik, eta 39 egun egin ditugu bidean, Santiagora heldu arte. Gutxi gorabehera mila kilometro egin ditugu.

Jende askorekin elkartu zarete bidean?

Mari: Bai, neska alemaniar batekin egun asko egin ditugu elkarrekin, eta beste lagun askok ez zuten bide guztia egin. Hasieran, Aste Santua zenez, Meridaino bideak beteta zeuden. Aste Santua bukatuta, geroago eta jende gutxiago ikusi genuen, askoz lasaiago ibili gara. Bidean lagun egin ditugu neska alemaniar hori, Sevillako senar-emazteak eta bi frantses.

Ez zen lehenengo aldia Donejakue bidea egiten zenuena, baina bai bide hau egiten zenuena, ezta?

Jose Mari: Hala da. Bide hau lehenengo aldiz egin dugu. Donejakue bide frantsesa deritzona birritan egin dugu: baten, Orreagatik; eta beste baten, Ozkabartetik. Aurten zerbait desberdina egin gura genuen, eta Sevillatik hasiera erabaki genuen.

Askotan hankako mina izaten da eta motxilak egun batzuetan gehiago pisatzen duela diote. Zein izan da etaparik gaitzena?

Jose Mari: Etapa gogorrenak bi edo hiru izan ziren. Bat, Cañaveraleko herrira heldu gine-nekoa; eta beste bat Luvianen, Galizian. Han elurra eta txingor-zaparrada gogorak egin zizkigun bidean. Hori izan zen gogorrena.



IKER BARANDIARAN

“Hotza gogorra da, baina hotzaren eta beroaren artean, ibiltzeko hotza aukeratuko genuke”

Izugarrizko hotza pasatu genuen egun haietan.

Gogoan daukat lehenengo egunetan berotan ibili zinetela, eta errekarren baten freskatu zinetela...

Mari: Bai, egia da. Badajoz inguruan izan zen. Extremadura

“Gaztela eta Leongo bidea ez dago ondo seinaleztatuta, baina Extremadura eta Galiziakoa bai”

aldean eta Salamancara bidean goizetan izotza egiten zuen, baina gero egunez bero handia egiten zuen. 10:30erako bero egiten zuen. Handik egun batzuetara, Zamora aldean, haize oso hotza egiten zuen. Gero, Galizian, birritan bakarrik egin zigun euria.

Familiartekoekin berba egingo zenuen sarri eguraldiaz...

Mari: Bai, familiartekoei Arrasaten elurra zela esan ziguten. Guk hamabi egunean ez genuen eguzki izpirik ikusi, baina hurrengo egunetan bai. Kolora pixka bat hartu dugu.

Zer gurago duzue ibiltzeko, hotza ala beroa?

Jose Mari: Hotza gogorra da, baina eguraldi oso beroarekin ere ez da eroso ibiltzen. Hotzaren eta beroaren artean, guk hotza aukeratuko genuke.

Mari: Bero handia egiten zuen egunetan, 14:00etarako bukatzen genuen. Hotza egiten zuen egunetan, berriz, kilometro askoz gehiago egiten genituen.

Ibilbidean arazorik izan duzue?

Jose Mari: Zamorako urtegiaren inguruan galdu egin ginen, eta 38 kilometro egin beharrean, 47 egin genituen. Segapotoa ezin genuen erabili, eta une batez urduri jarri ginen. Azkenean, bidea aurkitu genuen.

Erraza da Donejakue bidean galtzea ala bideak ondo seinaleztatuta daude?

Jose Mari: Orokorrean bideak ondo seinaleztatuta daude. Horri dagokionez Gaztela eta Leon eskas samarra da, baina Extremadura eta Galizia oso ondo daude, mugari eta guzti.

Aurretik informazioa jasota zenuen?

Jose Mari: Bai, lehendik informazioa batu genuen. Hala ere, guk gutxi gorabehera egun bakoitzeko ibilbidea zehaztu genuen. Izan ere, Mari Karmen-Llodiok eta Jose Ramon Okinak asko lagundu ziguten.

Ibilaldi bera egin gura duenari zein aholku emango zenio-kete?

Mari: Niretzat ona dena beste batendako txarra izan daiteke, ez naiz ausartzen aholkuak ematen. Hala ere, segapotoa eramatea oso komenigarria da, asko laguntzen du.

LABUR

Kiroldegiko bazkarirako txartelak eskuragai

Maiatzaren 29rako SUDCek eta Udalak herriko erretiratuendako bazkari erraldoia antolatu dute Musakolako kiroldegian. Dagoeneko eskuragai daude txartelak herriko erretiratuen elkarteetan. Bazkideek han jaso ditzakete, eta gainontzekoek udaletxean eskatu beharko dituzte.

Eskulanen erakusketa ipiniko dute Uribarrin

Gaur, egubakoitza, Uribarriko erretiratuen elkarteek eskulan ikastaroetara egindako lanak erakusgai ipiniko dituzte. Besteak beste, margolanak, ehoziak eta bainika. Erakusketa hori gaur zabalduko dute, eta egunero egongo da zabalik 17:00etatik 20:00etara.

Martitzenean, Kataidera ibilaldia egingo dute

Martitzenean, maiatzaren 25ean, Uribarri elkarteko erretiratuek Kataide-Eroskira ibilaldia egingo dute. 16:00etarako egin dute hitzordua, elkartean bertan. Interesatuek lehenbailehen eman beharko dute izena Uribarrin. Ibilaldia Gernika oinezkoen zumarditik egingo dute.

1936an jaiotako emakumeen urteroko hitzordua

Biharko (zapatua), 1936an jaiotako emakume arrasatearrek urteroko hitzordua egin dute. Hala, 13:00etan meza izango dute San Juan Bataiatzailearen elizan. Horren ostean, paseoa egingo dute, eta 14:00ak aldera bazkaria izango dute Musakola hostalean. Ziur dantzaren ere egingo dutela!

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

LORAK
BELEN MAIZTEGI
Teleordainketa
24 orduko zerbitzua
Biteri etorbidea 13
ARRASATE
Tel.: 943 08 15 44
LORAK

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Fabrikan erakusketa
Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

Gorka ilepaindegia peluqueria
Orduetgia:
Asteleheneetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerias 35 - 943 77 13 78

Gambrinus garagardotegia
• Menua:
bazkariak eta afariak
• Karta
• Errazioak
• Pintxoak eta kazuelatxoak
Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32



ARRASATE
Mainer Urrutia
Maiatzaren 23an, 9 urte.
Zorionak! Arantza, Xabier
eta etxeokak.



ARRASATE
Markel Apellaniz
Maiatzaren 23an, 9 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Francisco A. Vigara
Maiatzaren 10ean, urte-
betetzea. Zorionak! Fami-
liakoak.



BERGARA
Maite Blanco
Maiatzaren 24an, urtebe-
tze. Zorionak! Fran, Azo
eta Maitane.



ARRASATE
Goizane Naranjo
Maiatzaren 20an, urtebe-
te. Zorionak! Familiaren
partetik.



ARRASATE
Ainara Asuncion
Maiatzaren 15ean, 13 urte.
Zorionak! Maitaneren par-
tetik.



ARRASATE
Jurgi Duque
Maiatzaren 17an, 18 urte.
Zorionak, eta urte askota-
rako! Gurasoak eta Oier.



ARRASATE
Joseba Urzelai
Maiatzaren 20an, 5 urte.
Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Juan Gil
Maiatzaren 18an, 32 urte.
Zorionak! Neskalaguna-
ren partetik.




ARAMAIO
Unai Ezpeleta
Maiatzaren 15ean, 10 urte.
Zorionak! Familiaren par-
tetik.



ARAMAIO
Idurre Ezpeleta
Maiatzaren 23an, 5 urte.
Zorionak! Familiaren par-
tetik.



ARRASATE
Xabier Murillo
Maiatzaren 17an, 6 urte.
Zorionak! Egoitzen, aitaren
eta amaren partetik.



ARRASATE-OÑATI
J. L. Saavedra eta Nagore Iglesias
Maiatzaren 16an, urtebetetzea. Zorionak! Izaskun.



ARRASATE
Luis Rodrigues
Maiatzaren 26an, 24 urte.
Zorionak! Zure maitearen
partetik.



ARRASATE
Aitor Azkarate
18an, 11 urte. Zorionak!
Amatxo, aitabxo, Josu, Iba
Mila eta tio Pepe.



ARRASATE
Jon Mondragon
Maiatzaren 21ean, urte-
betetzea. Zorionak, Mon!
Termitak.




ARRASATE
Markel Zabala
Maiatzaren 22an, 27 urte.
Zorionak, Martxelo! Ter-
mitak.



ARRASATE
Nahia Arnaiz
Maiatzaren 13an, urtebe-
te. Zorionak! Familiakoan
partetik.



ARRASATE
**Arrate Isasi-
Isasmendi**
Maiatzaren 21ean, 10 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Naroa Agirre
Maiatzaren 24an, urtebe-
te. Zorionak! Etxekoak eta,
berezi, Unai.



ARRASATE
Irati Lizarralde
Maiatzaren 27an, urtebe-
te. Zorionak! Etxekoan par-
tetik.



ARRASATE
Lide Errarte
Maiatzaren 23an, 26 urte.
Zorionak! Familia eta zaz-
pi.



ARRASATE
Ixone Tricio
Maiatzaren 19an, 18 urte.
Zorionak! Salogakoan par-
tetik.



SORALUZE
Ubane Madera
Maiatzaren 24an, urtebe-
tze. Zorionak, *terremoto!*
Lankideak.



ARRASATE
Ibai Elorza
Maiatzaren 22an, urtebe-
te. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Enaitz Elorza
Maiatzaren 22an, urtebe-
te. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Naiara Moreno
Maiatzaren 25an, 8 urte.
Zorionak! Etxekoan par-
tetik.



ARRASATE
Garazi Parra
Maiatzaren 22an, 2 urte.
Zorionak! Gaizka, aitabxo
eta amatxo.

Adi!

Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia bueltatu egingo dizugu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren.
Komeni da argazkia urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea.




URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 posta - kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

EZETZASMATU



ARTXIBOA

Zein da argazkian ikusten duzuen lekua?
Arrastoa: orain dela gutxi eraikinok erabiltzen dituen elkarteak 100 urte egin ditu.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Vivesoy zukua
Litroko brika

0,95€ 158 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MARI ASUN AGIRIANOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Mari Asun!
Galderen erantzun zuzena:
San Juan parrokian.

ARRASATEKO HISTORIA

Mondra taldeak mailaz igotzea lortu zueneko

'PEQUEÑA HISTORIA DEL...'/ J. LETONA

Arrasateko futbolararen gaineko historiaren azkeneko atalera iritsi gara dagoeneko. 80ko hamarkadan gaude.

Hasteko, esan beharra dago 81-82 denboraldia oso garrantzitsua izan zela Mondrarendako. Aurreko urteko ia jokalariek bere osatutako taldeak jardun zuten. Entrenatzailea ere bera zen: *Bonba*. Baita zuzendaritza ere. Horrez gain, ordura arte moduan, harrobia bultzatzeko politikarekin segitu zuten.

Urte hartan Mondrak denboraldi erregularra egin zuen. Bigarren postua eskuratu zuen ligan, eta horrek hirugarren mailarako promozioa jokatzeko aukera eman zion taldeari. Edozelan ere, urte hartan ez zuten lortu mailaz igotzea.

Behragoko taldeei dagokien, berriz, Makatzenak gazte mailan jarraitzea lortzeaz gain, Gipuzkoako Kopako finalerdia iristea lortu zuen, besteak beste.

82-83 DENBORALDIA

Halaxe iritsi ziren Mondrakoak hurrengo denboraldira. Lehenengo, esan beharra dago oso aurrendoraldi ona egin zutela 82-83an. Izan ere, Bergara Hiria eta Maka-



'PEQUEÑA HISTORIA DEL FÚTBOL EN MONDRAGÓN'

Argazkian, Herriko Plaza jendez beteta Mondrari ongietorria egiten, eta taldeko zenbait jokalariek bakoitza.

tzena izeneko trofeoak irabazi zituzten. Gauzak horrela, liga txapelketa interes handiarekin hasi zuten. Taldeak ez zuten partidu bat bera ere galdu hamargarren jardunaldira arte. Hortik aurrera, gorabeherak izan zituen. Besteak beste, Aretxabaletako UDA talde-

Athleticekin egiten duten antzera, 'itsasontzian' eraman zuten taldea udaletxeraino

ak Iturripen irabazi egin zion Mondrari. Badirudi partidu hura gaitzeak arrasatearren indarrak pitzarazi egin zituela; izan ere, handik aurrera beste bederatz jardunalditan ez zuten partidurik galdu. Gauzak horrela, 11 partidu besterik ez zitzaiz falta liga txapelke-

ta bukatzeko, eta Mondra taldea aurrenekoa zen sailkapenean. Handik aurrera, 11 partiduetatik bakarrik galdu zuten Mondrak, Aretxabaletan, UDAREN kontra. Baina hura galtzea nahikoa izan zen UDA aurreneko postuan jartzeko. Gainera, liga bukatzeko bi partidu besterik ez zen falta.

Edozelan ere, futboleko edozer gerta daiteke. Lidertza galdu eta astebetara Elgoibarri irabazi egin zion Mondrak, eta UDAk, berriz, galdu egin zuen Zarautzen kontra. Horren ondorioz, Mondrak liga irabazi zuen eta hirugarren mailara igotzeko promozioa jokatu zuen, Urolaren kontra. Ehunka zale joan ziren partidu hura ikustera, Argixaora. Mondrak aski zuen berdintzea, baina, hala ere, 2-3 irabazi zion Urolari. Modu horretan, horrenbeste urtez galduta izan zuen hirugarren mailara igotzea lortu zuen.

Sekulako ongietorria egin zuten Arrasatera etorri zirenean. Bitxikeria moduan, eta Athletic taldearekin egiten dutenaren antzera, Txispas-ek eta Peixoto-k itsasontzian eraman zuten talde osoa udaletxeraino. Hantxe, udalbatzarrek harrera egin ostean, jokalariek udaletxeko balkoira atera ziren, eta Herriko Plazan elkartu zen jendetza agurtu zuten.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko maiatzaren 21a / 109. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolora Lizenziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Lastertasun Handiko Trenaren proiektuan aldaketak egon daitezkeela esan digute

UBANE MADERA

Lastertasun Handiko Trena dela-eta, aramaioar batek jakinarazi digu hasierako proiektua aldatu duten susmoa duela. Hain zuzen ere, Bolinburu eta Lugartei baserrien arteko zatia tunelpean joan beharrean, lur gainetik joango den kezka handia dauka hark.

Bolinburu baserriko Luis Mari Herizek kontatu digunez, joan den zapatuan, hilaren 15ean, Madrilgo topografo bi baserrira joan zitzaizkion plano batzuekin. Plano haien arabera, Bolinburu eta Lugartei baserrien artean Lastertasun Handiko Trenaren ibilbide zatia tunelpean joan beharrean lur gainetik joango da Kataiaraino; Bolinburu baserriatik 100 bat metro eskasera, hain zuzen ere. Jakina, horrek eragin zuzena izango du Lugartei eta Bolinburu baserrietan. Besteak beste, tren horrek egundoko zarata sortzen duelako.

Bere kezka handia azaltzeaz gain, Luis Mari Herizek salatu du eurei inork ez diela inolako abisurik eman, eta tren hori egiteko, gutxi gorabehera Bolinburu



Bolinburu baserriatik 100 bat metrora pasatuko da Lastertasun Handiko Trena.

baserriko 15 bat hektarea beharko dituztela.

Besteak beste, udaletxean galdetu du eta han jakinarazi diote udaletxean lehengo proiektuaren planoak dituztela eta ez die-

tela inolako aldaketaren berririk eman. Gauzak horrela, guk Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailera jo dugu. Saileko teknikari Emilio de Franciscok jakinarazi digu posible dela

Madrilgo Sustapen Ministerioak aldaketaren bat egitea proiektuan. Herri Lan saileko teknikariaren esanetan, berez, hasierako proiektua jarraitu beharko lukete, baina aldaketak egin

ditzakete. Bereziki, kontuan hartuta Sustapen Ministerioak delatuta lanon ardura. Gaineratu zizun Legutianorainoko zatia proiektua dezente aurreratuta dutela Eusko Jaurlaritzan, baina Legutianotik gora doana ez dagoela horren landuta; horrenbestez, aldaketak egitea errazagoa dela. Are gehiago, gaineratu zizun halakoak gertatu izan direla behin edo behin.

Hori dela eta, kezkatuta daudenek zer egin behar duten galdetuta, erantzun zizun egokiena dela Udalera jotzea; Udalaren bitartez bideratzea kezka hori. Udalak Eusko Jaurlaritzara jo beharko du, eta hortik aurrerakoak Jaurlaritzara arduratuko da.

NONDIK NORA

Jaurlaritzaren proiektuaren arabera, Osinaldetik sartuko da Lastertasun Handiko Trena Aramaion. Tunelpean egingo du ibilbidearen zati handiena eta Bolinburu eta Lugartei baserrien ostean aterako da airera. Katalan zubia eraikiko dute eta handik Arrasatera sartuko da tren. Edozelan ere, esandako moduan, proiektua behin-behinekoa da eta baliteke aldaketarik egotea.



Umore ona joan den zapatuko bazkarian

Joan den zapatuan bazkari berezia egin zuten 60 urte bete dituzten zenbait aramaioarrek. Andre-gizon talde handia elkartu zen ospakizunean. Kontatu digutenez, Barajuenean meza entzun zuten lehenengo, eta gero Zabolara joan ziren bazkaltzera. Bazkalostean dantza saioa eta guzti izan zutela kontatu digute. Eta ederki asko ibili zirela. Oroitzapenerako argazkia ere atera zuten, Udaltx mendia atzean zutela.

LABUR

Joan den asteko artikuluari zuzenketa

Joan den astean, Aramaio Tropikaleko Gazte Asanbladaren gaineko artikuluan aipatu genuen aurtengo jaietarako aurrekontua dezente murrizta dela. Eta oker geunduen. Mertxe Mondragon alkateak jakinarazi digu aurtun 20.000 euro dituztela San Martin jaietarako, iaz baino gehiago. Gazteek ere argi utzi nahi dute iaz baino diru gehiago dagoela aurtengo jaietara; edozelan ere, gaineratu dute euren ustez kopuru hori ez dela nahikoa. Barkatu eragozpenak.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoia duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BAÑERAREN EMAITZAK

Neskek bukatu dute aurtengo denboraldia. Azkeneko partidua, Fumin-koniren kontrakoa, ezin izan zuten jokatu, jokalaria nahikoa ez zirelako agertu. Hortaz, 0-1 galdu zuten. Mutilei dagokienez, zapatuko partiduan 9-2 irabazi zieten Jesus Obrerokoei. Bihar, zapatua, berriz, Kanpezun dute partidua, 11:30ean, Kostaleraren kontra.

BARIKUKO ZINEMA

Oraingo honetan, Roman Polanskiren *El Pianista* filma emango dute. Nazismoaren gainekoa da.

DOMEKAKO ZINEMA

Leyendas del Océano marrazki bizidunen filma emango dute. Abenturazkoa da eta pertsonaien artean, batek Coustearu zientziagizon ezaguna irudikatzen du.

EMAKUMEEN TOPAKETAK

Aurten Murgian izango dira Zuiako Koadrilak antolatutako Emakumeen Topaketak. Interesa duenak maiatzaren 28a baino lehen eman behar du izena.

Jende asko eta giro polita Orixolen txangoan; hurrengoa Pirinioetara

UBANE MADERA

Ondo asko ibili ziren joan den asteburuan Orixol Mendi Elkartearekin bat egin eta asteburua kanpoan eman zutenek. 40 lagun baino gehiago joan ziren txangora. Datorren astebururako beste ekitaldi bat antolatu dute, Pirinioetara.

Ume eta nagusien artean, 42 lagunek parte hartu zuten joan den asteburuan Orixol Mendi Elkarteari antolatutako txangoan. Eguraldiak lagunduta, oso ondo ibili zirela kontatu digute. Zapatuan, Jaizkibel inguruan ibili ziren, eta Guadalupen bazkaldu ostean, Hondarribian pasatu zuten arratsaldea. Domekan, berriz, Hendaiara joan ziren goizean eta hondartzan eta Abbadie erreserba naturalean ibili ziren. Bazkalostean itzuli ziren etxera.

ORAIN, PIRINIOETARA

Bestalde, datorren astebururako beste irteera bat antolatu du Ori-



Hendaiako hondartzan eta Abbadie erreserba naturalean ibili ziren domeka goizean.

xol Mendi Elkarteari. Pirinioetara, oraingo honetan. Maiatzaren 29an eta 30ean egingo dute irteera. Hala, maiatzaren 29an, sei-zor-

tzi orduko ibilaldia egingo dute: Belagua-Hiru Erregeen Mahaia-Linza. Eta maiatzaren 30ean, bost-zazpi ordukoa: Zuriza-Txipeta-

Selva de Oza. Bazkideek 55 euro ordaindu beharko dute; gainera, 65. Lo egiteko zakua eraman beharra dago.

BOTEPRONTOAN/ Aitor Axpe · Pilota partiduetan epaile

“Pilotaren inguruan sortu diren enpresak dirua ateratzeko egiten dute egiten duten dena”

Aitor Axpe azkoagarra da. Hori bai, ezkondu zenetik Akalean bizi da. Berez, Fagorren egiten du lan, baina hortik kanpo pilota partiduetan jarduten du epaile lanetan. Azkenaldian, profesional mailan askotan jardun du eta hemendik aurrera ere askotan jardungo duela esan digu:

Zela hasi zinen epaile?

Aurrez pilotaria izan nintzen, eta beti egon naiz Barea Pilota Elkartearen barruan, Enrikeri laguntzen. Horren bitartez atera nintzen epaile. Taldea antolatu genuenean, pilotariek gain epaileak ere behar zirela-eta, Aramaiotik lau lagun joan ginen. Azterketa egin genuen Euskal Federazioan eta horrekin eman ziguten epaile titulua, orain dela 15 bat urte.

Zenbat zarete Euskal Herrian?

Guztira, 100-edo. Baina hor ere eskasia dago. Ia ez dago inor besteei laguntzen lan egingo duenik, eta epaile izatea zerbait ordaintzen da, baina ez asko. **Hori horrela, zaletasuna da zuena, ez ofizioa, ezta?** Nik garbi daukat zer den. Orain arte ia beti zaleen mailan ibili naiz, eta ia beti hemen, Aramaion. Zertarako? Bada, hemen partiduak jokatzeko direnean,



“Benetako zaleari, haurrak, gaztetxoak eta profesionalak gustatzen zaizkio”

inori deitu behar ez izateko. Baina orain dela bi urte profesional mailan Aspek eta Asegarek LEPM sortu zutenean (pilota txapelketa), eurek aukeratu zituzten epaileak. Probintzia bakoitzeko kopuru txikitxo bat. Hala, Araban bi epaile bakarrik gaude. Jakina, pilotan, edo barruan zaude edo kanpoan zaude. Eta nik baietza eman nuen. Batez ere ikustearren zelakoa den mundu hori. Hala, normalean, bi partidutik batean egotea tokatzen zait. **Badirudi pilota apur bat aldrebestuta dagoela azkenaldian...** Enpresak direnez, dirua, dirua eta dirua besterik ez dute buruan. Eta gainontzeko guztia erabiltzen dute dirua ateratzeko. Ez dut esaten pilotariak gaizki zainduta egongo direnik, edo prestakuntza txarra dutenik. Baina, kirolaren

ikuspuntutik ikusita, pilotari askok momentu askotan derrigorrez jokatu behar dutela-eta, jokatu egiten dute. Hori argi ikusten da. Enpresa dira, dirua ateratzeko sortuta daude, eta dirua ateratzeko egiten dute egiten duten dena. Eta aldrebestu? Bada, bueno. Nik uste dut hori dela funtsezkoa: kirol arloari ez diotela lehentasunik ematen, baizik eta diruari.

Halako batzuetan ikuskizunak galdu egiten du, hortaz, baita zaleak ere...

Zalea kaltetuta ateratzen da, bai. Baina zaletasun hori ere... Hor dago, adibidez, Goñiren kasua. Agertzen bada pilotalekua bete egiten da, jakinda Mikel Goñi orain arte ez dela izan eredu. Ahalmen batzuk baditu, baina beste edonor izango balitz ez litzateke hor egongo. Zein da arrazoia? Pilotalekuetara jendea joaten dela. Eta nik ez dut ulertzen. Mikel Goñi jokatu beharko luke bost bider hobeto.

Kontuak kontu, Aramaion bada zaletasuna, ezta?

Umeak erakartzea erraza da, baina eskolako ordutegiaren barruko ekintza moduan hartzen dute. Domeketan, adibidez, ia inor ez dabil pilotan.

ERRETRATUZAHARRA


Sasoi bateko
eskola umeen
argazkia

San Antolingo eskoletako ikasle izan zirenen argazkia ekarri digute oraingo astean argitaratzeko. Sekulako neskatila mordoa. 1960-61 ikasturtekoa da. 10-11 urte zituzten argazkiko neskatilek.

Honako hauek dira, goitik hasita: 1- Arantza Sasiain, 2- Rosa Maria Maiztegi, 3- Felisa Biteri, 4- Julia Herranz (andereñoa), 5- Adela Lazkano, 6- Elena Egizabal eta 7- Maria Teresa Alonso.

Bigarren ilaran, ezkerretik hasita: 8- Maria Nieves Etxabe, 9- Lourdes Mauleon, 10- Antoni Madinabeitia, 11- Edurne Arrizabalaga, 12- Isabel Velasco, 13- Maribel Sarazibar, 14- Mikele Auzmendi, 15- Juli Bachiller eta 16- Mari Carmen Olibenza.

Hirugarren ilaran, ezkerretik hasita: 17- Lupe Navarro, 18- Miren Gallastegi, 19- Pakita Andres, 20- Araceli Lozano, 21- Lourdes Oruna, 22- Maria Jose Sagasta, 23- Txaro Etxabe, 24- Maria Angeles Salazar eta 25- Blanca Romeo.



Laugarren ilaran, ezkerretik hasita: 26- Maribel Lopez, 27- Maria Emilia Dominguez, 28- Maria Angeles Saez, 29- Gloria Fernandez, 30- Begoña Gorosabel, 31- Lucia Guridi, 32- Izaskun Agirre, 33- Tere Gallastegi, 34- Lourdes Elortza eta 35- Txaro Orue.

Bosgarren ilaran, ezkerretik eskumara: 36- Begoña Varona, 37- Maria del Mar Martin, 38- Eli Aranbarri, 39- Rosa Maria Elexpuru eta 40- Lupe Muxika.

Eta azkeneko ilaran, eserita, ezkerretik eskumara: 41- Lourdes Ibabe, 42- Maria Luisa Romeo, 43-

Isabel Jauregi, 44- Kontxi Valdes, 45- Tere Altzola eta 46- Maria Tere Aranbarri.

Argazkia eta informazioa:

Lupe Muxika
Urtea: 1960-61

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Tren estazioa,
autobus
geltoki

90eko hamarkadaren hasieran, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuen Arrasaten eskualderako autobus geltokia jartzea. Udalak sei leku proposatu zituen, eta azkenean tren geltoki zaharra eta Lau Bide plaza aukeratu zituzten Foru Aldundiari aurkezteko. Geltokiaren behin betiko kokagunea Foru Aldundiak erabaki zuen, eta Lau bide ingurua aukeratu zuten.



≈ 1990 Garai baten tren estazioa izan zena gutxi-gatik ez zen autobus geltoki bilakatu. Ez zen, baina, aukera aproposena.



2004 Tren geltokiaren eraikina zaharra bezain esanguratsua da. Aspaldi ez du bere betebeharrak bete-tzen, baina beste erabilpen batzuk eman dizkiote.

MADINA ZURAK

Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiako osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

OSORIK
PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA



- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

Monte
taberna

Maaiako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Edertasun gida



ILE APAINDEGI MISTOA

iaran

Zerrajera 1.
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
zapatuak: 08:00-14:00

BITXORI
ile apaindegia



Erdiko kale 52
Tel.: 943 79 88 32



Maatz
ILEAPAINDEGIA

Antso Abarka, 3 bajo · Musakola
ARRASATE · Tf. 943 79 58 78



JADE
ILEAPAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

ILEAPAINDEGIA

virginia.L

MISTOA

Lapurdi 3. Zigarrola.
ARRASATE
Tel.: 943 79 65 65



AUSART

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

ILEAPAINDEGIA

ILEA
UNISEX

Ferrerias 14 - 943 79 87 62

Lore

Olarte 10 · ARRASATE · 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa



KORA O'NEAL Ayer HR CLEARLINE BIOTHERM VALMONT



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

Bai, pentsatzen ari zaren
guztia egiteko gauza da.



Opel Astra berria. Fida zaitetz zure begiez.

Gertuagotik begira egiozu: IDSplus gidatzeko sistema interaktiboa, Sport Switch botoia kirol-gidatze hobea izateko, ECOTEC motor indartsuak, Twinport, 200 ZP-rainoko CDTI, eta faro egokituak dituen bakarra bere klasean

Proba ezazu zure Opel kontzesionarioan

Astra gama: kontsumo (l/100 km) mistoa 4,9 tik 9,1 era. CO₂ emisioa (g/km) 132 tik 218 ra

Giauto

Olabarrena z/g Tel. 943 76 33 44/46. **BERGARA**
San Andres Auzoa 10D Tel. 943 77 30 10. **ARRASATE**